



Emakume migratzaileen ahotsa, jasaten duten indarkeria azaleratzeko

Topaketa • Egunotan jardunaldiak egiten dabilta Durangon, emakume migratzaileek jasaten dituzten indarkeria motak ikusarazteko. Gure eskualdean bizi direnek mahai-inguru batean parte hartu dute Alboan Gobernuz Kanpoko Erakundearen eskutik. Jatorri desberdina dute, Ghana, Ekuador, Sahara, Ekuatore Ginea eta Senegal, migratzeko arrazoa eta egindako ibilbidea ere desberdinak, baina badute zerbait amankomuna: bizimodu hobe baten bila etorri dira eskualdera, eta hainbat indarkeria mota jasaten dute emakume eta migratzaile izateagaitik. • 4



Bederatzi ibilbide Durangaldea hobeto ezagutzeko

Mendia • Durangoko Al-pino Tabira Mendi Klubak 'Ermitak bide, Durangaldea bizi' liburua aurkeztu du asteon. Liburua Durangaldeko bederatzi ibilbidek osatzen dute, denak ere bizkaieraz kontatuak eta gaztelaniara itzuliak. Ibilbideei lotura bat eman guran, ermitak baliatu dituzte. • 29



"Guganako babesa gazteon bizi baldintza duinen aldeko bultzada bihurtzea gura genuke"

Erreportajea • Ekainean zehar Durangaldeko bost lagun epaituko dituzte auzi bitan. LABeko kide birentzat 23na hileko kartzela zigorra eskatu dute. Bestalde, Ernaiko hiru kidek epaiketa izango dute ekainaren 15ean. Epaiaketak salatzeke, mobilizaziora deitu dute ekainaren 4rako. • 2-3



Anbotokide kanpainaren aurkezpena

ANBOTOK Anbotokide kanpainari ekingo dio bihar Durangon. Komunitatea saretzea da kanpainaren helburua. Irakurle guztiak parte hartzera gonbidatuta daude. • 12



**ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA**

**UNAI
GARAY**

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 • unaigaray@yahoo.es

“Guganako babesa gazteon bizi baldintza duinen aldeko bultzada bihurtzea gura genuke”

Ekainaren 15ean, Bizkaiko zazpi gazte epaituko dituzte Bilboko epaitegian; tartean, Durangaldeko hiru gazte. Iaz Ernaik deituriko mobilizazio batean atxilotu zituzten.



ERREPORTAJEA • ARITZ MALDONADO
Ekainaren 15ean, zazpi gazte bizkaitar epaituko dituzte Bilboko epaitegian. Iazko maiatzean Ernai gazte antolakundeak deituriko mobilizazioetan atxilotu zituen Ertzaintzak, desordena publikoa sortzea, agintearen aurkako atentatua eta lesio delitua egotzita. Hamazortzitik hogeitahilabetera bitarteko kartzela zigor eskaerei eta 20.000 euroko zigor ekonomikoari aurre egin beharko diete. Zazpi gazte horietariko hiru Durangaldekoak dira eta euren artean bigaz batu da ANBOTO: Martin Loizate (Durango, 1997) eta Pello Zabarte (Zaldibar, 1997). Gazteei elkartasuna adierazteko eta iazko mobilizazioetara deitzeko arrazoei “bere horretan” jarraitzen dutela salatzei, Ernaik manifestaziora deitu du ekainaren 4rako; 17:30ean hasiko da, Bilboko Plaza Eliptikotik.

Ernaik mobilizaziora deitu du ekainaren 4rako.

Pello Zabarte: Gazteok, iaz, kalera irten genuen larrialdi egoera batean bizi garela salatzei. Pandemiaren testuinguruagaz bizkor areagotzen zebilen egoera bat izan arren, egoera hau estrukturala dela uste genuen, eta uste dugu. Gazteon prekaritatea salatzei irten genuen kalera, etxebizitza lortzeko dugun ezintasuna, lan prekarioak, langabezia tasa altua, gaixotasun psikosozialak, kriminalizazioa... salatzei. Horiek denak salatzea irten

genuen, eta antolakuntzaren eta borrokaren beharra azpimarratzea. Gerora, muntaia polizial bat sortu da mobilizazio horien inguruan, euren errelatoan oinarritzen dena.

Martin Loizate: Iaz kalera irten genuen datuak eskasak zirelako. Hiru gazterik bat langabezian zegoen, eta lanean zeudenek soldataren %45 alokairua ordaintzeko erabiltzen zuten. Horiek adibide bi baino ez dira. Eta gaur egun egoera ez da hobea. Prezioen igoera ere kontuan hartu behar da, gainera. Arazoa koiunturala zela zioten, baina agerian geratu da gezurra zela. Ikusi da birusa ez dela egoera honen erantzulea. Sistema bera da arazoa, eta horri buelta eman ezean ez da konponduko.

Manifestazioaz gainera, beste ekitaldi batzuk ere antolatu dituzte.

M. L.: Besteak beste, elkartasun kontzertuak eta mahai-inguruak antolatu ditugu, eta harrera ona izan dute. Ez dugu ezer espero, ez poliziarengandik ezta epaileengandik ere. Inguruak babestu gaitu, eta horri eskerrak irtengo gara ondo.

P. Z.: Ingurukoari eta denei babes hori eskertu gura genieke, eta, aldi berean, babes hori gazteon bizi baldintza duinen aldeko bultzada bihurtzea gura genuke. **Ekainaren 15ean epaiketa izango duzue.**

M. L.: Bizkaiko zazpi gazte epaituko gaituzte. Bakoitzarentzat

18tik 20 hilabetera arteko zigor eskaerak eta 20.000 euroko zigorak eskatzen dituzte. Desordena publikoa sortzea eta lesio delituak egitea egozten digute.

P. Z.: Hasieran, agintearen aurkako atentatua egitea ere egozten ziguten. Baina instrukzio epaileak desordenik egon ez zela ebatzi zuen. Hortaz, deigarria da desordenik egon ez den testuinguru batean zazpi atxilotu eta 60 zauritu egotea. Gu nahiko arin atxilotu gintuzten, beste lau gaztegaz batera; zazpigarrena geroago atxilotu zuten, izan ere protestek Deustuko polizia-etxearen inguruan jarraitu zuten. Irudiak daude, grabatuta dago bertan zeuden gazteak eta auzotarrak zelan jipoitu zituzten. Eguneko irudi mordoa dago, eta denetan indarkeria bakarra ikusten da, Ertzaintzaren aldetik datorrena. Hala ere, ez dakigu zer gertatuko den epaiketan, ertzainen berba hor dagoelako, eta hori da frogak bakarra, azken finean.

M. L.: Larrialdi egoeraren erantzuleak seinatu gura izan genituen, eta horregaitik amaitu genuen manifestazioa Albia Lorategietan [Sabin Etxea bertan dago]. Gaia alboratu gura zutela ikusita, arduradunak eurak zirela azpimarratu gura genuen, eta esango nuke hori ez zitzaizela gustatu, eta horregaitik agindu zutela kargatzea; kargaren atzean, benetan, ez zegoen desordenik ez horrelako besterik.

Bizi baldintza duinen alde aterpea bilatu guran

Ekainean zehar Durangaldeko bost lagun epaituko dituzte zenbait protestatan parte hartzeagaitik

ERREPORTAJEA • A. M.

Bizitza ohiko erritmoa berreskuratzeko ari den honetan, kaleek ere trintxera izaera berreskuratu dute. Martxoaren 8an morez, eta maiatzaren 1ean gorritz; Abiadura Handiko Trenaren aurkako oihuak Irazolan, eta gazetxearen aldekoak Durangon; joan zen asteburuan ere, milaka lagunek Donostiako kaleak bete zituzten euskararen alde. Irudi desatseginak ere itzuli dira berriro: greban zeudela, Tubacexeko langileek hainbat liskar izan dute Ertzaintzagaz, eta Gasteizen, ikasle greba batean, 34 lagun atxilotu zituzten; tartean, Durangoko gazte bat. Hain zuzen ere, halako protestetan parte hartzeagaitik Durangaldeko bost lagun epaituko dituzte ekainean zehar. Epaituei babesa agertzeko eta “bizi baldintza duinen alde antolatzen eta borrokatzen direnen aurkako jazarpena” salatzei, Ernaik manifestaziora deitu du. “Gurea bezalakoak ez dira kasu isolatuak. Mugimendu sozialetako kideok bizi baldintza hobea eskatzera irteten dugu kalera, eta jazarpen bortitza

Espetxe zigor eskaerez gainera, eurentzat zigor ekonomikoa ere eskatuko dutelakoan daude, ziur ez badakite ere.

Metalaren greba, mugarri

Iazko abenduaren 31n amaitu zen lan itun hori, eta hasi dira lan itun berrirako negoziazioak. “Lan itun sektorialik garrantzitsuenetarikoa da metalarena, izan ere, 50.000 familia ingururi eragiten die. Durangaldean bertan ere eragin handia du. Aurreko negoziazioetan oso gogorra izan zen tirabira, eta hainbat urtez izoztuta egon eta gero, lan ituna berreskuratzea lortu zen. Egindako borrokari esker izan zen hori”, azaldu dute sindikatuko kideek. Maiatzean lan hitzarmena negoziatzeko plataforma bateratua sortu dutela iragarri dute ELAk, LABek, CCOOk eta UGTk. “Aurrekoak baino negoziazio bizkorragoak espero ditugu, baina aurrekotik ikasi dugu borroka egin ezean ez dela ezer lortuko”, gaineratu dute. Bestalde, Araban greba eta mobilizazioak egin dituzte aste honetan.

LABeko kideen berbetan, metalgintzan antolaturiko mobilizazio horiek mugarri bat izan ziren. “Aspaldian Euskal Herrian ikusi bako irudiak ikusi ziren, eta, zoritxarrez, gerora errepikatu direnak; lehenengoz, Jaurralitzak Ertzaintza erabili zuen arlo laboralean eragiteko. Kargak, atxiloketak, inputazioak... multa mordo bat ere ailegatu da”, salatu dute sindikatuko kideek. Ordutik, hainbat mobilizazioetan errepikatu dira antzerako irudiak, bai lan gatazketan baita bestelako protestetan ere.

Babes zabala

Epaiaketa hauek salatzea euren jarduna defendatzeko modu bat dela uste dute epaituek. “Ernaiko kideek antzerako aldarrikapenak egin dituzte eta eurak ere epaitu eta zigortuko dituzte. Helburu berdineagaz ari gara lanean, eta guk jaso dugun babes berdina jasotzea dagokie euren ere”, azaldu dute LABeko kideek. Hain zuzen ere, plataforma bat sortu zuten sindikalista biak babesteko.

Ernaiko kideak babesteko ere ekimen ugari egin da azken asteetan Euskal Herrian. Zaldibarren elkartasun kontzertua egin zuten maiatzaren 20an, eta mahai-inguruak ere egin

Ekainaren 7an LABeko kide bi epaituko dituzte; hilaren 15ean, Ernaiko zazpi kide

jasotzen dugu Ertzaintzaren aldetik. Ez da Ernairen kontrako kontu bat, militantzien kontrakoak baino. Ikusi ITPren kasua, adibidez”, azaldu du Martin Loizate Ernaiko kideak. Ernai gazte antolakundeak iaz antolaturiko mobilizazioetan parte hartu eta gero, eskualdeko hiru gazte atxilotu zituzten; tartean, Loizate bera. Ekainaren 15ean epaituko dituzte, beste lau gazte bizkaitarrekin batera.

Bestalde, ekainaren 7an, Aitor eta Arkaitz (abizenik ez publikatzea eskatu dute) LAB sindikatuko Durangaldeko kideak epaituko dituzte. Bakoitzak 23 hilabeteko kartzela zigor eskaerari aurre egin beharko dio. 2019an Bizkaiko Metalgintzaren lan itunaren harira egindako protestetan atxilotu zituzten. “Ez dira momentuko kolpeak eta atxiloketa, eta espetxe zigor eskaera bakarrik; 2019ko gertakari batzuk 2022an epaituko dituzte, eta horrek ere zama psikologiko bat suposatzen du”, adierazi dute.

dituzte antzerako kasuak bizi dituzten eragileetako kideekin; Tubacex enpresako langileak, Iruñerriko mugimendu feministako kideak eta SOS Arrazakeriako kideak izan dituzte bide-lagun, besteak beste. "Gure alea mahai gainean ipini gura izan dugu. Ez da bidezkoa horrelako jazarpen kasuak bizi behar izatea guztiontzako bizitza baldintza duinak eskatzeagaitik", azaldu du Martin Loizatek. "Ekainaren 4ko mobilizazioagaz ez dugu gure kasua salatu gura bakarrik: kasu konkretu honez gainera, antzerako prozesuak bizitzen ari

dira mugimendu feministako kideak eta hainbat lan gatazkatako langileak, besteak beste Durangaldeko metalgintzako langileak. Pertsona arrazializatuek sufritzen duten jazarpena ere salatu gura dugu. Problematika horiek mahai gainean ipini behar dira. Bizitza duinen aldeko aldarria jarraitu behar dugu borroka horietan. Gure iritziz, merezi du bizi proiektu burujabeen alde antolatzea, eta horregaitik hartuko ditugu berriro kaleak Bilbon", nabarmendu du Pello Zabarte Ernaiko kideak.



LABeko kide biak Durangoko epaitegi aurrean babestu zituzten.



2019an metalgintzak egindako mobilizazio bateko irudia.

XXIX. URAREN JAIA 2022

ARRIGORRIAGA

Lehendakari Agirre parkea – Joan XXIII.aren plaza – Udaletxeko plaza

ZIRKUITU TEMATIKOAK

PUZGARRIAK UR EKINTZAK

TAILERRAK ERAKUSKETAK

JOKOAK ANIMAZIOA

IKUSKIZUNAK

EKAINAK 4
10:30 – 19:00





Durangaldean bizi diren emakume migratzaileek eguazten arratsaldean egin zuten mahai-ingurua.

"Migratzaile garen emakume guztiak ausartak gara, guzti-guztiak"

Alboan elkartearen eskutik, Durangon jardunaldiak egiten dabilta emakume migratzaileek jasaten duten indarkeria ikusarazteko. Eskualdeko kideek euren bizipenak kontatu dituzte

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Bonbardaketetatik ihes egin behar izan zuen batek. Hiru alaba zituela alargundu eta sorterritik alde egin behar izan zuen beste batek. Hirugarren bati etxea alokairuan hartzea ukatu zioten Durangon. Bakoitzak bere bizipenak ditu, bere ibilbideak, bere desafioak, migratzeko arrazoiak. Baina badute elkarren artean antzeko ezaugarriak: herrialdetik alde egitera beharturiko emakumeak dira guztiak, eta denak Durangaldean bizi dira.

Alboan Gobernu Kanpoko Erakundea emakume migratzaileek jasaten dituzten indarkeria motak ikusarazteko lanetan dabil egunotan. Karpa bat ipini du Durangoko Landako Gunearen ondoan, eta berbaldiak, mahai-inguruak zein erakusketak eskaintzen dabil bertan. Durangaldera etorritako hainbat emakume mi-

gratzailek mahai-inguruetariko batean parte hartu dute. Tartean, Ekuatore Ginean sortu eta Durangon bizi den Carolina Muana Remik. "Gauzak hemen ez dira batere errazak izan. Behetik hasi

"Gauzak hemen ez dira batere errazak izan; behetik hasi behar izan dut guztia"

behar izan dut guztia. Zailtasun ugari izan dut dokumentazioa lortzeko. Lana topatzeko ere, berdin. Ikasketei berrekin diet eta orain garbiketa ikasketak egiten nabil", azaldu du. Awa Clementine Diatta Manga Senegaletik ailegatu zen Durangaldera. "Gurasoe-kin etorri nintzen, hegazkinez. Nire ibilbideak, alde horretatik, ez du zailtasunik. Baina hemen

ez nuen neure burua aurkitzen. Hizkuntza ondo ez nekienez, ez nuen lagunik. Eta lagunik ez nuen, bakardadean bizi nintzen. Askok borrokatu behar izan dut bidean aurrera egiteko", aitortu du.

Emakume izateari migratzaile izatea batzen zaionean, bikoiztu egin daitezke norberak jasandako indarkeria motak. Graciela Torres Calderón ekuadortarrak ondo daki hori. Ondo gogoan ditu pertsonen zaintzari lotuta bizi izandako lan baldintza prekarioak: "Egoitza batean lan egin nuen. 24 orduz egon behar izaten nuen han, egunero. Domekak bakarrik nituen libre", dio. Hayeba El Kori Hamadi sahararrak ez du zalantzarik. "Abiapuntu eta errealtate desberdinak bizi ditugu, baina argi esan gura dut migratzaile garen emakume guztiak ausartak garela, guzti-guztiak", amaitu du.



Iban Uribetxebarria durangarra Lasterbidean egitasmoa antolatzaileetarikoa da.

"Eskualdeko 50 herritarrek baino gehiagok egingo dute korrika Lasterbidean"

Zapatuan Lasterbidean lasterketa egingo dute Kanpezun (Araba), "euskal errepresaliatuen aldeko" lasterketa.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Dena prest dago. Etxeko lanak eginda ailegatuko da aurtengo Lasterbidean. Arabako Kanpezu herria Euskal Herri osotik ailegaturiko korrikalariekin beteko da zapatuan "euskal errepresaliatuen alde" lasterka egiteko. Iban Uribetxebarria durangarra buru-belarri dabil antolakuntza lanetan. Urte biko etenaren ondoren, berriro ekin dio egitasmoa antolatzeari, eta aurtengo edizioak ere harrera ona izango duela aurreikusten du: "Izen-emate kopuruagaz pozik gaude. 500 bat lagunek eman dute izena lasterketa luzerako. Horrez gainera, 600 bat lagunek parte hartuko dute herri bazkarian. Ia txartel guztiak agortu dira", aurreratu du. Bertara korrika egitera joango diren Durangaldeko kideak 50 lagunetik gora izango dira, Uribetxebarriaren berbetan. "Durangaldeko jende asko etorri izan da beti Lasterbideanera. Aur-

ten ere 50 kidek baino gehiagok egingo dute korrika. Dena dela, gehiago izango dira herri bazkarian parte hartuko dutenak". Korrikaldian lasterketa luzea (9 kilometro pasatxo) eta laburra (3 kilometro pasatxo) egongo dira.

"Kirol proba baino gehiago da, errepresaliatuei eta senideei elkartasuna adierazteko modu bat"

Uribetxebarriak egitasmoaren izaera azpimarratu du: "Kirol proba bat baino gehiago da, euskal errepresaliatuei eta haien senideei elkartasuna adierazteko modu bat. Azken urteetan haien egoera orokorra hobetu den arren egoera salatzen jarraitu behar dugu. Eskubide urraketek irauten duten bitartean hor egongo gara", dio Uribetxebarriak.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko maiatzaren 27a
20. urtea - 894. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

LAGUNTZAILEAK

Durangoko Udalak osasun publikoa hobetzeko konpromisoa betetzea eskatu dio Jaurlaritzari

EAJk Gaitasun Handiko Osasun Zentroari buruzko mozioa aurkeztu du aste honetan egindako plenoan. Gobernu taldeak beste testu bat aurkeztu du eta horrek egin du aurrera

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Iritzi bi, mozio bi. Baina ardatza, bakarra: osasungintza publikoa. Asteon egindako osoko bilkuran, Durangoko zinegotziek udalerriko eta eskualdeko osasun zerbitzuei buruz eztabaidatu dute. EAJk mozio bat eraman du bertara, orain aste batzuk aurkezturiko Gaitasun Handiko Osasun Zentroari buruzko mozioa. Testuagaz, proposamena Jaurlaritzari helaraztera bultzatu gura izan dute gobernu taldea, Jaurlaritzak "proiektuaren bideragarritasuna" ebatzi dezan. Baina gobernu taldeko alderdiek beste mozio bat kontrajarri dute. Bertan, 24 orduko pediatria zerbitzua, medikalizaturiko anbulantzia bat, Lehen Mailako Arreta hobetzea eta ospi-

tale baten beharrezana aztertzea eskatu dute. Azken testu honek egin du aurrera, gobernu taldeko zinegotzien botoekin.

Osasun zerbitzuen diagnostikoa egiteko eskatu diote Jaurlaritzari, legebiltzarrak eskatu bezala

"Erantzukizun eza"

EAJk adierazi du "zentzubakoa" dela gobernu taldearen jarrera. Osasun arretari buruzko mozio alternatibo bat aurkeztuta gobernu taldea "arreta desbideratzen ahalegintzen" dabilela dio, "PERIaz

eta Garraio Sailagaz lotu duten akordiorako oinarriaz berba egitea saihesteko", hain zuzen ere. Jeltzaleen iritziz, gobernu taldeak "erantzukizun eza" erakutsi du herritarrenganako, "Durangorako kaltegarria den akordiorako oinarri batez aurrera jarraitzeko".

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak Durangoko eta eskualdeko osasun zerbitzuak hobetzeko konpromisoa bete dezan eskatu diote Jaurlaritzari. Ildo horretatik, alderdi biek gogora ekarri dute legebiltzarrak Durangaldeko osasun zerbitzuen diagnostikoa egiteko hartu zuen konpromisoa: "Jaurlaritzak Durangaldean ospitale bat eraikitze beharra antzemango balu, udalak baliabide guztiak ipiniko lituzke horretarako".

Durangoko Udala lurpeko zaborrontziak zigilatzen eta gaineko espazioa berreskuratzen dabil

Sasikoa kalean atsedenerako gunea egin dute, esaterako

DURANGO • J.D.

Durangon lurpeko zabor edukiontzia erabilerarik barik geratu direnez, udala haiek zigilatzen eta gaineko espazioak herritarrentzat berreskuratzen dabil. Lur azpikoa lur begetalez edo harriz estaltzen

da. Gaineko aldeetan lan desberdinak egiten dituzte. Esaterako, Sasikoan eserlekuak eta zuhaitzak ipini dituzte, Kanpatorrostetan eta Komentukalen jardinerak, eta Sanagustinalden aparkaleku elektrikoak.



Sasikoa kalean atsedenerako gunea egin dute.

Ate irekien eguna Kids&Us Durango zentroan

Kids&Us Durango zentroak ate irekien egun bat prestatu du ingelesa ikasteko Natural English metodologiaren berri emateko oraindik ezagutzen ez duten familiei.

Kids&Us Durango zentroko Open Day eguna Ekainaren 4an egingo dugu. Ate irekien egun horretan, 1 eta 7 urte arteko haurrentzako doako jarduerak egingo ditugu ingelesez; besteak beste, ipuin kontalari bat izango dugu eta eskulanak egingo ditugu, baita jolas asko ere!

Zertan datza Open Day eguna?

Ate irekien egun horren helburua bikoitza da: batetik, haurtxoei eta haurrei ingelesa ikasteko jakin-mina piztea, eta, bestetik, familiek Kids&Us-en Natural English metodologia zuzenean ezagutu ahal izatea.

Kids&Us eta bere metodologia

Kids&Us-en, ingelesaren zentzua irakasten da, ingelesez irakatsi ere; heldutasunerako bidean laguntzen dira ikasleak, zentzuz ikastea haurren funtsezko eskubide bat dela zinez sinetsita. Kids&Us ingelesa ikastearen mundua aldatzeko eta esperientzia paregabe eta integral bihurtzeko asmoz jaio zen, eta gauzak beste modu batera egiteko borondate irmoz egin zuen.

Kids&Us-en Natural English metodoak ama-hizkuntza gureganatzeko prozesua kopiatzen du, eta ingelesa berez eta modu naturalean ikasteko aukera ematen die haurrei. Gainera, haien emozioak kontuan hartzen ditu, eta modu esanguratsuan ikasteko balio duten bitarteko bihurtzen ditu emoziook.

Erreserbatu zure plaza Open Day egunerako

Ate irekien eguna ondo joan dadin, plaza kopurua mugatua da. Erreserbatu zurea, bada, webgune honetan: <http://kidsopenday.com>

Verónica Gonzalez

Kids&Us Durango
Durangoko Plateruen Plaza, 8
coordinacion.durango@kidsandus.es
T. 607 499 516
<https://durango.kidsandus.es>

Kids&Us[®] Ingelesa unte letik aurrera
school of english

eman izena hemen!

Ez galdu aukera!

Born to be Me!

Indartu bere potentziala ingelesaren bitartez

Ate Irekien Eguna
06/04 →

Etorni gure ikastegia ezagutzera!
Kids&Us Durango
Durangoko Plateruen Plaza 8
coordinacion.durango@kidsandus.es
T. 607 499 516

Garaiko eta lurretako txirrindulari talde batek 1.200 kilometroko zeharkaldia egin dute 10 egunean

'El Camino del Cid' ibilbidea egin dute Bilbo, Burgos eta Alacant lotuta. Bidean, Soria eta Teruel igaro dituzte

GARAI / IURRETA • EKAITZ HERRERA

Joxemari Iturralde idazle tolosarrak *Lau bizikleta urrutira joateko* liburua kaleratu zuen 1994an. Gazte literaturako eleberririk hartan, lau lagun biziak gainera abenturak jaso zituen. Eta, zergaitik ez, albiste honetako protagonistak ere izan zitezkeen liburu hartako protagonista. Lau lagun direlako, orain dela gutxi bizikletaz bidaia-

tu dutelako elkarregaz, eta urrutira joanda kilometro mordotxo bat egin dutelako. Haiena, baina, ez da fikzioa, errealitatea baino, hezur-haragizko errealitatea.

Alberto Landa garaitarrak, José Félix Zamanillo iurretarrak, David Munduate iurretarrak eta Antonio Parra bilbotarrak 1.200 bat kilometroko zeharkaldia egin dute bizikletan, alpor-

txak aldean. 'El Camino del Cid' delakoa egin dute, Cid Campeador noble eta militar gaztelarren bidea. Joan zen maiatzaren 14an Bilbotik irten zuten eta hamar eguneko zeharkaldia eta gero, Alacantera (Herrialde Katalanak) ailegatu ziren. Bidean, Burgos, Soria, Teruel, Castello eta Valentzia zeharkatu dituzte. "Esperientzia polita" izan dela azaldu du Alberto Landak. "Lobos ibaiaren haitzartea igarotzea, adibidez, zoragarria izan da. Oso leku ospetsua da, oinez zein bizikletaz egiteko oso aproposa", azaldu du. "Aipagarria iruditzen zaidan beste leku bat Ojos Negros (Teruel, Aragoi) herriko meatzaldea da. Meatzea itsas mailatik 1.400 metroko garaieran dago", dio. Lau herritarrak aste honen hasieran bueltatu dira bidaiatik etxera.



Lau txirrindulariak, Lobos ibaiaren haitzartearen inguruko paraje batean.

Proiektu pilotuak herritarren parte hartzea sustatzeko

Udalak 'Arkalaz! Herrigintzan bat' egitasmoa abiatu du. Herritarrak kudeaketa publikora hurreratu gura ditu


ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak "Parte hartzea lehenetsiko duen gobernantza eredu berri baterantz" joan gura du, "herritarren parte hartzea bultzatuko duen kudeaketa publiko baterantz". Hori dela eta, Andoni Agirrebeitia alkateak eta Ainhoa Salterain Gizarte Ekintza zinegotziak *Arkalaz! Herrigintzan bat* egitasmoa aurkeztu dute.

Proiektuak herritarren parte hartzea sustatu gura du udalgingizako kudeaketa publikoan. Ildo

horretatik, udalak herritarrekin osaturiko foroak antolatuko ditu, udazkenetik aurrera, taldeka. Lehenengoak adinekoekin eta familiekin egingo dituzte. Modu horretan, herritarrek komunikazio kanal zuzena izango dute udalgintzako organismoekin. Proposamenak helarazteko aukera izango dute.

Bestalde, udalak proiektu pilotu gehiago ere egingo du nerabeekin eta gazteekin, "ahotsa haiekin ere emateko".



Andoni Agirrebeitia eta Ainhoa Salterain udal ordezkariak.

Aurrekontu parte hartzaileen bozketa fasea zabaltu dute lurretan

Bederatzi proiekturen artean hiru onenen alde botoa eman dezakete iurretarrak, ekainaren 5era bitartean

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak bozketa fasea zabaltu du 2022ko aurrekontu parte hartzaileetarako ipiniko dituzten 50.000 euroak zein proiektutan erabiliko diren erabakitzeko. Bederatzi proiekturen artean hiru onenen alde bozkatzeko aukera dute iurretarrak, datorren ekainaren 5era bitartean.

Besteak beste, Arriandin aisialdi gune berri bat egokitzea, Beresin autokarabana gunea ipintzea, kalistenia gune bat sortzea eta hilerrian hainbat konponketa egitea proposatu dute. Baita herriko jarlekuak eta Beresiko txintxaunak berriztatzea ere, eta Iturburu kaleko espaloia eta oinezkoentzako gunea konpontzea, udal arduradunek jakinarazi du-

tenez. Bidebarrietan Gabonetako apaingarriak ipintzeko edo zoladura labankorretan tratamendu irristagaitza egiteko ere bozkatu daiteke.

Udalaren webgunean edo sare sozialetan bozkatu daiteke; edo etxetara bidalitako eskuorria beteta

Iurretarrak Internetez eman dezakete botoa udalaren webgunea eta sare sozialak erabilita. Bestalde, etxetara bidali dituzten eskuorriak bete daitezke, eta, gero, hainbat tokitan ipini dituzten postontzietan sartu.

Zergek, tasek eta prezio publikoek bere horretan jarraituko dute Zornotzan

Zornotzako udalbatza osatzen duten alderdi guztiek aho batez hartu dute erabakia bozeramaileen batzordean



Tasak izozten dituzten hirugarren aldia da jarraian.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Ez gora, ez behera. Zornotzako udalak dauden moduan utziko ditu datorren urteari begirako tasak, zergak eta prezio publikoak. Udalbatza osatzen duten alderdi guztiek hartu dute erabakia, aho batez. Aurtengoagaz, hirugarren urtez jarraian erabaki dute tasak izoztea. Beraz, ondasun higiezin gainera zergak, ibilgailuen zergak, obren eta eraikuntzen zergak zein uraren, saneamenduaren eta zaborren zergak bere horretan geratuko dira datorren urtean.

Udal iturriek diotenez, udalak "erdigunean" ipini gura ditu herritarrak, besteak beste "inflazioari aurre egin ahal izateko". Andoni agirrebeitia alkateak berretsi du emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bultzatzen jarraituko dutela, herri "jasangarriago bat" lortzeko bidean, eta udalerriko jardura ekonomikoari bultzada emateko. Udalaren egoera ekonomikoa "ona" da bere esanetan.



Anbotokide kanpainaren
aurkezpena:

Maiatzak 28

Benita Uribarrena
parkean, 13:00etan

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

**> anboto
kide**



Txomin Artola kontzertu batean. JULEN URIBE.

Txomin Artola musikariaren kontzertuagaz hasiko dituzte Andikoa auzoko jaiak

BERRIZ • J.G.

Andikoa auzoko Asentzio jaiak ekitaldiz beterik datoz. Maiatzaren 27an hasiko dira jaiak, Amaia Garciak emango duen irrintzi ikastaroagaz. Iluntzean, Txomin Artola musikari hondarribiarrak kontzertua emango du santutegian.

Donien Atxa maiatzaren 28an jasoko dute, 18:00etan. Ondoren, Oihana Iguaranek eta Sustrai Colinak bertsoan egingo dute. Idoia Barcelo eta Miren Amuriza izango dituzte gai jartzaile. Maia-

tzaren 29rako, egun osoko egitaraua prestatu dute. 12:00etan meza izango da, eta, ondoren, Ireminé dantza taldeko dantzariak emanaldia egingo dute. Arratsalderako, umeen jolasak eta txokolatada, Mirari eta Aintzaren erromeria eta bolo joko txapelketa aurreikusi dituzte.

Hurrengo asteburuan, auzo afaria egingo dute bertsolari eta trikitilariarekin lagunduta. Bolo jokoen ondoren, jaietako zozketa txartelen sari banaketa egingo dute.

Sarrimendira irteera antolatu dute bere gailurrean txistulariaren eskulturaren erreplika ipintzeko



Josu Maortuak sorturiko txistulariaren eskultura.

BERRIZ • J.G.

Urtarrilean, Sarrimendi mendiko gailurreko postontziaren gainean zegoen txistulariaren eskultura lapurtu zuten. Zapatuan, Berrizko Udalak txistulariaren erreplika bat ipiniko du bertan, lapurturikoa ordezkatzeko. Amaraune Mendi Elkartek, Berrioiz Guraso Elkartek eta Andikoako jai batzordeak zortzi kilometroko mendi irteera antolatu dute. 9:00etan irtengo dira, Elizondo plazatik. Ibilbidea Elizako plazan hasiko da, San Kristobal ermitatik igaroko da eta Sarrimendiko gailurrera helduko dira. Sarrimendiko puntan, dantzari eta txistularien emanaldiaren ondoren, 1990ean Josu Maortua zaldibartarrak egindako eskulturaren ordezko irudia ipiniko dute. Alejandro Aldekoa txistulari berriztarra gogoratzeko eta eskola-kirola omentzeko sortu zuen eskultura. Ekitaldia amaitu ondoren, Andikoa auzora jaitsiko dira. Bertan, San Asentzio jaiekin bat egingo dute.

Batzarra egingo dute Zaldibarko Berdintasun Kontseilua sortzeko

ZALDIBAR • J.G.

Martxoaren 31n egindako osoko bilkuran Zaldibarko emakumeen berdintasunerako kontseiluaren estatutuak onartu ondoren, Zaldibarko Berdintasun Sailak kontseilu hori sortzeko lehenengo bilerara deitu du orain.

Bilera maiatzaren 30ean izango da, 18:00etan, liburutegi zaharrean

Bilera maiatzaren 30ean izango da, 18:00etan, liburutegi zaharrean. Bertan parte hartzeko izen-ematea berdintasuna@zaldibar.eus helbidean eta 946 827 016 telefonoan egin daiteke.

Adintxikikoak zaintzeko zerbitzua maiatzaren 27a baino lehenago eskatu beharko da. Hori beste urrats bat da Zaldibarrek lehenengo Berdintasun Kontseilua izan dezan.



Olazarko ur txorrotak martxan ipini dituzte Zaldibarren

ZALDIBAR • J.G.


Temperatura altuei aurre egiteko, Olazarreko ur txorrotak martxan daude 10:00etatik 22:00etara, udalak prentsa oharrean azaldu duenez. Udalak erantzukizunez jokatzeko eta ura modu arduratsuan erabiltzeko eskatu die erabiltzaileei, “ura denon baliabide naturala” dela gogorazita.



Gure aukerak,
zuretzat onenak!

Saldu, erosi, trukatu, oparitu... EUSKARAZ!

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Odontologia**
RPS: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz-iklinika Durangon

**IREKIERA
ESKAITZA**
(2022ko urtailaren 25a arte)

Lehen bisita:
Erradiografia, diagnostikoa eta hortzak
garbitzea doan

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarría

Dakizuenek, betidanik izan gara
adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago,
den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheak -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

**Naia
Zabala
Azumendi**
11587 kol. zk.



keinu

- Optometria teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio
neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

**PAUSOZ
Podologia
klinika PAUSO**

Goitz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, beheak 48200 durango

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D
DURANGO**

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO**
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
www.medicinaesteticaDurango.com

Obesitatea-zelulitisa, Laserra:
depilazioa, barizeak, tatuajeak behin
betiko kentzeko laserra..
Adinaren kontrako tratamenduak:
orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6 / 48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zaindus

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea
beheak eskuma
MATIENA-ABADIÑO**

944 657 132 - 686 906 374

Elorrion jardunaldia antolatu dute Funcor kooperatiba izan zena ezagutarazteko

Ekainaren 4an izango dira, Iturri Kultur Etxean, 10:30etik 13:00etara. Beharrezkoa izango da aurrez izena ematea

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Andoni Esparza Gallastegi Gizartegintza Elkartek Funcor kooperatibaren inguruko jardunaldia antolatu du ekainaren 4rako. Jardunaldi honek Funcor izan zena ertz ezberdinetatik ezagutaraztea izango du helburu. "Badakigu askorentzat gai mingarria dela eta askoren zauriek sendatu barik jarraitzen dutela. Baina Andoni Esparzak eta baita Funcorrek ere asko eman zioten Elorriori. Beraz,

jardunaldi bat antolatu dugu Funcor izan zena ezagutzeko", esan du Arkaitz Sodupe elkarteko kideak. Esparza hil zela 10 urte bete direnean antolatu dute jardunaldia.

Andoni Esparza Gallastegik 1955ean sortu zuen Funcor kooperatiba. Nekazaritzarako makineria ekoizten zuten. Estatu espainiarreko lehenengo enpresa izan zen atzerrira teknologia esportatzen, eta Euskal Herrian doako ikastola bat sortu zuen lehenengo

enpresa ere izan zen, besteak beste. Esparzaren proiektuak 1970era arte iraun zuen eta honen itxierak hainbat ika-mika sortu zuen. Esparzari Funcorreko diruak desegoki erabiltzea leporatu zioten eta salaketa bat ipini zuten bere kontra.

Andoni Esparza Gallastegi elkarteko Jabier Lertxundi kideak jakinarazi duenez, Funcorren gertaturikoa ikertzen ibili dira, eta hori aztertuta antolatu dute jardunaldia. "Badakigu Funcorre-na tabu dela. Baina gaia lantzen eta egia jakiten ahalegindu gara. Horregaitik, jardunaldian parte hartzeko gonbita egiten dugu", azaldu du Lertxundik. Jardunaldia 10:30etik 13:00etara izango da eta hainbat hizlari izango dira: Andoni Basabe, Julia Itoiz, Iñigo Agirre, Mikel Onandia, Rikardo Ajuria eta Jabier Lertxundi bera. Gainera, bertaratzen direnek euren ekarpena egin ahal izango dute. "Askorentzat gogorra izango da, baina aukera ona izango da zauriak osatzeko", azaldu du Idoia Buruaga alkateak. "Gainera, gai ika-mikatsua izan arren, horrek ez du esan gura iragana ez dela aztertu behar. Horrek iraganeko akatsetatik ikasteko balioko du", gaineratu du Beñat Gaztelurrutia Gerediagako kideak. Bestalde, atzetik datozen belaundientzat Funcorren nondik norakoak ezagutzea adibide ona izan daitekeela esan du Jesus Aristegi Laumunarrietako kideak.

Jardunaldian parte hartzeko beharrezkoa izango da gerediaga@gerediaga.eus helbidera idaztea edo 94 681 80 66 telefonora deitzea izena emateko.



Ezkerretik hasita, Aristegi, Buruaga, Lertxundi, Sodupe eta Gaztelurrutia.

Ibaikua bidegurutzeko lanak uda ostean hasteko asmoa dute

Ibaikua kaleko bidegurutzea hobetzeko proposamena aurrekontu parte hartzaileetan botorik gehien jaso zituen da

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurrekontu parte hartzaileak egin eta herritarren iritzia kontuan hartuta, Elorrioko Udalak Ibaikua kaleko bidegurutzea hobetuko du. Udalaren hitzetan, Ibaikua ingurua herriko gune estrategikoa da; izan ere, igerilekuetara eta futbol-zelaira oinez, bizikletan zein kotxean joaten den pertsona askoren elkargunea da. "Iazko urrian egin genuen aurrekontu parte hartzaileen prozesuaren ondorioz, herritarrek

Ibaikua bidegurutzea hobetzea eskatu zuten, San Juan eta Elizalde kaleen artean, oinezkoiei eta bizikletei lehentasun handiagoa emateko", adierazi du Idoia Buruaga alkateak. Hori horrela, lanak esleitu eta proiektua idazteko fasean dago.

Horrez gainera, enpresa esleipenduna gune segurua bermatzeko hainbat aukera planteatzen ari dela-eta, udalak, bere aldetik, aukerarik onena baloratuko duela jakinarazi du.



Ibaikua kaleko bidegurutzea.

Alluitz Mendi Taldeak irteera eta bazkaria antolatu ditu ekainaren 4rako, 30. urteurrena ospatzeko

Maiatzaren 28a izango da izena emateko azken eguna. Mezua bidali beharko da alluitzmenditaldea@gmail.com helbidera

ABADIÑO • E.H./M.Z.

Abadiñoko Alluitz mendi taldeak hiru hamarkada beteko ditu mendizaletasuna, kirola eta aisialdia batzen. Ekainaren 4an urteurren eguna ospatuko dute eta taldeak egitarau txiki bat prestatu du urteurren horretarako. Mendi irteera egingo dute Urdai-bai aldera. Lagako hondartzatik hasita, San Pedro Atxarrera eta Marua mendira igoko dira. Gero, Akordan bazkalduko dute.

Izen-ematea

Alluitz mendi taldeak antolatutako mendi irteeran eta bazkarian parte hartu gura dutenek mezua bidali beharko dute alluitzmenditaldea@gmail.com helbidera. Maiatzaren 28a izango da azken

Lagako hondartzatik hasita, San Pedro Atxarrera eta Marua mendira igoko dira

eguna izena emateko. Mendi taldeko bazkide direnek 20 euro ordaindu beharko dute, 10 euro hamasei urtetik beherako umeek, eta 45 bazkide ez direnek. Antolatzaileek autobusa ipiniko dute ibilbidearen hasiera puntura joateko. Autobusak 9:30ean irtengo du, Txanporta plazatik. Traña-Matienatik 9:40 aldera pasatuko da. 18:00 aldera egingo dute buelta.



Alluitz mendi taldeko kideek 2019ko abenduaren 25ean Astxiki mendira egindako irteera.

Zabalik dago Atxondoko udalekuetarako izen-ematea

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Marixurrike aisialdi elkarteak udalekuak antolatu ditu 2022ko udarako. Aurten ere, aisialdi taldeko kideek hiru astetarako antolatu dituzte udalekuak: lehenengo astea ekainaren 27tik uztailaren 1era izango da, bigarrena uztailaren 4tik 8ra, eta hirugarrena uztailaren 11tik 15era. Udalekuetan parte hartu gura duten umeek edozein astetarako apuntatzeko aukera izango dute.

Udalekuetarako izen-ematea maiatzaren 31 baino lehenago egin beharko da, aisialdi taldeak horretarako ipini duen formularioa beteta. Aste bakoitzekeo prezioa 40 euro da.

Zapatuko kontzertuan, Tenpora taldeak musika ipiniko die Mallabiko Mendibil abesbatzak abesturiko kantei

Euskarazko hamaika abesti eta Afrikako kanta bat eskainiko dituzte Mallabiko elizan egingo duten emanaldian

MALLABIA • J.D.
Mendibil abesbatzak eta Tenpora taldeak kontzertua emango dute zapatuan, 19:00etan, Mallabiko elizan. Emanaldia elkarlanaren emaitza da. Tenporak musika ipiniko die abesbatzak abesturiko kantei.
Hamabi abestik osatzen dute kanta zerrenda. Eurretari hamaika euskarazkoak dira, hala nola *Negua joan da ta, Maitia nun zira, Baratze bat* eta *Mendian gora*. Abesti bat Afrikakoa da, *Honono* izenekoa, eta Mendibileko kideek jatorrizko hizkuntzan abestuko dute.
Urmuga ekimenaren barruan musikarien eta abesbatza baten arteko kolaborazioa ikusi zutenean, mallabitarrek Urmugakoekin hartu-emanetan ipini ziren. Haiek, kolaborazio horretan aritu zen Tenpora taldeko Juantxo Zeberio

teklistarengana bideratu zituzten. Tenporakoak horrelako elkarlanetan aritutakoak dira eta ideia ona iruditu zitzairen. Orduan hasi zen elkarlana.
Lehenengo, abestien zerrenda erabaki zuten. Lehenengo en-

tsegu Aste Santu aurretik egin zuten, Mallabian, Zeberiogaz. Eta joan zen barikuan talde bietako kide guztiak batu ziren, Mallabian, entsegu orokor baterako. Zapatuan bertan, kontzertuaren aurretik, berriro errepasatuko

dituzte abestiak. "Entseguak oso ondo joan dira eta ilusionatuta gaude", adierazi du Mendibil abesbatzako zuzendaria den Iratxe Uribelarreak. Kontzertua doakoa izango dela azaldu dute antolatzaileek.



Tenpora taldeko kideak zuzeneko batean.

Izurtzako jubilatuen elkarteak Errioxa ezagutzeko egunpasa antolatu du

IZURTZA • J.D.
Izurtzako Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak egunpasa antolatu du ekainaren 18an Errioxako Donemiliaga Kukula herria eta bere inguruak ezagutzeko. Izen-ematea udaletxean egin daiteke, ekainaren 10a baino lehenago.
Besteak beste, herriko monasterio ezaguna bisitatuko dute goizean zehar. Monasterioa bertan aurkituriko glosengaitik da ezaguna. Izan ere, euskarazko izkriburik zaharrenetari-koak han daude, X-XI. mendeko liburuko ertz batean.
Ondoren, Bastidako Jatorrena jatetxean bazkalduko dute. Patatak errioxar erara eta bakailaoa dira aukeran egongo diren plateretariko bi.

Otxandioko igerilekua ekainaren 15ean zabalduko dute, Cessport enpresak

OTXANDIO • J.D.
Aste bi inguru falta dira aire libreko igerilekuen denboraldia hasteko. Otxandiokoa, esaterako, ekainaren 15etik aurrera egongo da zabalik. Aurten Cessport enpresak kudeatuko du. Urte birik behin, udalak lehiaketa publikora ateratzen du kudeaketa eta eurak izan dira punturik gehien batu dutenak. Cessport enpresa aditua da igerilekuen kudeaketa integralak eramaten, eta Bizkaiko udal as-

Erabiltzaileek ekainaren 6tik aurrera egin ahalko dituzte igerilekuko bonuak, udaletxean
kogaz lan egin du: Getxokoagaz, Santurtzikoagaz, Portugaletekoagaz...
Erabiltzaileek ekainaren 6tik aurrera egin ahalko dituzte bonuak, udaletxean.

28 herritarrek landa auzoak garbituko dituzte auzolanean

Ubideak eta bide bazterrak txukunduko dituzte

MAÑARIA • J.D.
Asteburu hau eta hurrengo auzolanerako erabiliko dituzte Mañarian. Udaletik deia herrira zabaldu eta 28 lagunek eman dute izena. Urtero egiten duten moduan, boluntarioak herriko landa auzoak garbitzen arituko dira, auzo bideko ubideak, batez ere. Izan ere, urtean zehar lurra eta zikinkeria pilatzen da ubideetan. Ekainaren 4an, udalak bazkari bat ordainduko die auzolanean aritu diren boluntarioei egin duten lana eskertzeko.





Gure ikasleen ahotan

“Ez da bakarrik sukaldaritzari enfokatuta dagoen gradu bat, elikadurarekin erlazioa duten hainbat alderdi ikusten dira”



IÑIGO OROZCO MOLINA
(Durango, 21 urte)
Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak gradu
4. maila ikasten ari da.

Definitu apur bat zeure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?
Batxilergoa Durangoko Fray Juan de Zumarraga Institutuan egin nuen Zientzia Teknologikoko adarrean. Oso gustuko dut kirola egitea, txikitatik igeriketa egin dut eta hondartzako sorosle moduan lan egin dut. Sukaldean ibiltzea gustatzen zait.

Zergatik aukeratu zenuen Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?
Betidanik gastronomia gustuko izan dut, txikitatik etxeko sukaldean aritu naiz amamari eta gurasoei laguntzen, gainera oso jatu on naiz. Saiatzen naiz jatetxe berrietara joaten eta plater berriak probatzen. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen, programa oso interesgarria iruditu zitzaidalako eta oso praktiko, lehen mailatik praktikak egiteko aukera ematen zuelako eta niretzat hori oso garrantzitsua zen.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?
Orain arte bizitako esperientzia ikaragarria izan da, oso pozik nago gradu hau aukeratu izanaz. Herrialde askotako lagunak egin ditut eta horrek kultura ezberdinak ezagutzeko aukera eman dit. Gainera, praktiketan jatetxe oso interesgarrietan egon naiz, adibidez Garaiko Aboiz jatetxean edo Boroa jatetxean, teknika berriak ezagutzeko aukera ezin hobe izan zen.

Nola definituko zenuke Basque Culinary Centerren jasotzen duzun ikasteko metodologia?
Beste unibertsitateekin konparatuta, Basque Culinary Centera desberdina da, garrantzi handia ematen diotelako talde-lanari eta ikasketa praktikoak egiteari. Metodologia ona da, elikagaiak nola lantzen diren, haien jatorria eta onurak ikasten delako. Gainera, enpresen administrazioarekin zerikusia duten irakasgaiak lantzen ditugu, ez da bakarrik sukaldaritzari enfokatuta dagoen gradu bat, elikadurarekin erlazioa duten hainbat alderdi ikusten dira graduan zehar.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?
Gehien gustatzen zaidana taldekideekin egiten den harremana da, denbora asko pasatzen dugulako elkarrekin proiektuak lantzen, eta horrek taldean lan egiten irakasten du, gaur egun oso garrantzitsua den gaitasun bat.

Zer nolako ekarpena egiten dizu praktikak egiteak?
Praktikak egitea oso gaztetatik lan eremua nola funtzionatzen duen ikasteko baliagarria da eta etorkizunerako prestatzen zaitu.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?
Orain Bartzelonako Nestle enpresan lanean nago eta, aldi berean, gradu amaierako lana egiten. Dena ondo badoa, nire asmoa da pare bat urte hemen geratzea, esperientzia hartzen joateko.

Jaian parte hartzeko deia, DBHk Abadiñon 25 urteko ibilbidea egin duela ospatzeko

Ekainaren 18an egun osoko jaia egingo dute institutuan, ikasle ohiekin eta herritarrekin



Gaur egungo Guraso Elkarteko kideak, garai batekoak, eta egungo irakasleak.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Abadiñoko Institutua sortu eta udalerriko ikasketa programan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen hasi zirenetik 25 urte bete direla eta, institutuko komunitateak jai bat antolatu du, egun biko jaia. Ekainaren 17an gaur egungo ikasleekin ospatuko dute urteurrena, ikasketa orduetan. Eta ekainaren 18an ikasle ohiei eta herritar guztiei begirako jaialdia egingo dute. Egun horretan, ekitaldia, herri bazkaria, bakarriketak

eta kontzertuak izango dituzte, besteak beste.

Bazkarirako txartelak, salgai

Jaialdia 12:00etan hasiko dute, Errota kultur etxean, ekitaldi bategaz eta dokumental emanaldi bategaz. 12:45ean dantzariak egongo dira institutuan, eta, jarraian, triki-poteoa egingo dute kalean. 14:30ean herri bazkaria egingo dute; 17:00etan Beatriz Elgezabalen bakarriketa egongo da. Egunari musikagaz emango diote amaiera. 18:00etan hasita, Rodri&Ale, Baske Street Boys, Sweet Rage eta herriko Disko Jartzaileak egongo dira. Herri bazkarirako txartelak gaurtik ekainaren 12ra bitartean egongo dira salgai Tipi-tapak, Bodeguilla, Abarketeruena eta Munts tabernetan zein institutuan bertan.

Politikan

Garazi Errasti
Silloniz
EH-Bildu



Osasungintzaren krisia

Eusko Jaurlaritzatik estatuko osasun sistema onenetakoa dugula besterik ez digute esaten. Tamalez, argi dago ez dela horrela, eta hau, aurreko urteetan jasan dugun pandemiak agerian utzi du. Lehen arreta zerbitzua, herritarrengandik hurbilen dagoen zerbitzua izanik, Jaurlaritzak ahaztu eta hiltzen utzi nahi duen zerbitzua dela dirudi. Horren adibide dugu, medikuarekin hitzordua hartzera joan eta azaltzen diren ia aukera gehienek medikuarekin beharrean, erizainarekin hitzordua hartzeko aukera besterik ez dute ematen.

2022ko otsailean, Eusko Jaurlaritza, gehiengo zabal batez onartuta, Durangaldeko osasun egoeraren inguruko diagnostiko bat egitera konprometitu zen. Diagnostiko horri esker, gure herrian eta inguruko herrietan osasungintzan dituzten premiak zeintzuk diren jakingo dugu. Hala ere, diagnosi horren emaitza itxaron beharrik ez daukagu, denok baitakigu lehen arreta eta pediatria zerbitzuetan adibidez hutsune nabarmenak ditugula.

Medikuarekin hitzordu bat izateko astebete itxaron behar izatea, edota haurra gaixo eduki eta 18:00ak izateagatik Gurutzetako ospitalera jo behar izatea ez da osasun zerbitzu on baten emaitza. Durangon ditugun bi anbulatorioek paziente karga handia dute, eta, beraz, hauek indartzea derrigorrezko eta ezinbesteko ekintza da.

EH Bildutik, zerbitzuaren aldeko benetako apustua egin eta beharrezko diren bitarteko material zein pertsonalak jartzeari ezinbesteko dela ikusten dugu.

Osasun zerbitzu duin baten alde lanean jarraituko dugu!

Durangaldea asteen

Elorrioko Intxorta Asti taldeak jaialdi bategaz ospatuko du 33. urteurrena

ELORRIO | Aurten 33 urte beteko dira Elorrioko Intxorta Asti Elkartea sortu zutela, eta maiatzaren 28an jaia egingo dute hori ospatzeko. Hainba tailer eginda emango diote hasiera egunari, eta, ostean, elizpean bazkalduko dute. Arratsaldean, ikuskizuna eta olinpiadak egongo dira umeentzat, eta gauean karaokea eta DJak gazteentzat.

'Egia, aitortza eta erraparazioa' emanaldi eta solasaldi zikloa ekainaren 2an Durangon

DURANGO | 'Egia, aitortza eta erreparazioa' solasaldi zikloaren barruan ekimena antolatu dute Durangon, ekainaren 2rako. Durangoko Arte eta Historia Museoa datorren egunean 18:30ean egingo duten emanaldian Anti film laburra eta Bizipenen Bilduma bideoa emango dituzte. Euskal Herrian Euskarazeko kideek joateko gonbita egin diete herritarrei.

Zornotzako Boroa industrialdea eta Erletxe lotuko dituzte bizipista berri bategaz

ZORNOTZA | Bizkaiko Foru Aldundiak mugikortasun jasagarriari loturiko proiektu berriak iragarri ditu. Bizikletentzako bizipista zabal bi eraikiko ditu. Erletxeko eta Larrabetzuko industrialdeak lotuko ditu batek, eta Erletxeko eta Boroako industrialdeak besteak. Aldundiak 2024an hasi gura du bizipistak eraikitzen.



Anbotokide kanpaina aurkeztuko dugu bihar Benita Uribarrena parkean

DURANGALDEA | Anbotokide kanpaina aurkeztuko dugu bihar, maiatzak 28, Benita Uribarrena parkean. "Herritar guztiak gonbidatuta daude zapatuko ekitaldian parte hartzera", azaldu du Jone Guenetxea ANBOToko zuzendariak. Durangaldeko euskarazko hedabideak 20 urte egin ditu aurten. Urteurren horren testuinguruan, Anbotokide kanpainak komunitatea indartzea eta saretzea dakar. Zero kilometroa lantzen dugun hedabide, komertzio, ekoizle, elkarte eta eragileen arteko saretzea bultzatzea eta sinergiak lantzea izango da kanpainaren helburua.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Arrike Liburutegia

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Podinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

hitz liburutegia

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburutegia.com

#salduenak

1^a
M
ama eme ume
M, AMA, EME, UME
Erika Lagoma / Estibx Fernandez (Elkar)

2^a
BASA
Miren Amuriza (Elkar)

3^a
EZ ERRAN INORI
Maddi Ane Txoperena (Elkar)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

DEKORAZIOA ETA ERAIKUNTZA

gehigarria 2021

 anboto





15 Margoak



16 Egongela



18 Logela



20 Komuna

Dekorazioa eta eraikuntza



22 Sukaldea

Etxea eraberritu behar denean, konfiantza ematen dizun profesional bat behar duzu, ezinbestean. Gehigarri honetan, sektore honetan diharduten esperientzia handiko enpresak aurkituko dituzu. Adituen gomendioak entzutea garrantzitsua da, zuk buruan duzun ideia hori egingarria den jakiteko edo moldaketaren bat behar duen erabakitzeke. Utzi profesionalei ekarpenak egiten, zure gustura egokitutako proposamena egingo dizute eta. Pandemiaren ostean, etxeko espazioei inoizko garrantzirik handiena eman diegu. Eta zaharbertitzeetan igarri egin da.

Baina, askotan, etxeko dekorazioan ez da zertan eraberritzerik egin haize freskoa sar dadin. Dekorazioan aldaketa batzuk eginda nahikoa izan daiteke. Hormen kolorea aldatu, papera jarri, izara berriak erosi, egongelarako kuxin batzuk aukeratu...

ALKI

Erreformak eta dekorazioa

Bizitzeko espazioak sortzen ditugu.

alki@interioresalki.com / www.interioresalki.com

Mikeldi kalea 6, 48200 Durango. 946813895/679097744



Margoak



Kolorez betetako espazioa

Etxe bati azken ukitua emateko ezinbestekoa da hormen kolorea pentsatzea. Baina, paretak kolorez margotzeaz gainera, badaude beste hainbat aukera. Muralak, biniloak, papera... Konbinazio egokiak espazio bat erabat itxuraldatu dezake. Papera aukera erraza izaten da. Espazio guztietara egokitzen direnak aurki daitezke. Umearen logelarako, egongelarako eta baita komunarako ere. Loreak, basoak, naturarekin lotutako elementuak eta baita forma geometrikoak dituzten marrazkiak ere modan daude.



Zure etxea, zure ametsa, gure konpromisoa.



BAÑOS IURRETA

Erakusketa eta komuneko osagarrien salmenta

ITURGINTZA BEROGAILUA GASA

Tel-Faxa: 946 202 433
NICO: 644 705 174
Email: b.iurreta@yahoo.es

Maspe kalea, 4 - 48215 Iurreta

MUEBLES DE COCINA Y HOGAR
ARRIANDI
SUKALDE ETA ETXeko ALTZARIAK

santosarriandi.com

Urbite industrialdea, 6 - Lokal 3
48220 Abadiño
Tel.: 94 620 26 56
Movil.: 657 79 38 72
abadiano@arriandi.com

Ametza
Rehabilitaciones

AMETSA REHABILITACIONES SL
GALLANDA 14.- 1º .ezk.
48200 DURANGO (BIZKAIA)
94 621 20 30 / 646 35 31 99
www.ametsa.es / info@ametsa.es

Egongela argitsuak

Egongela bateko protagonista sofa izaten da. Horren inguruan dekoratzen dira gainerako elementu guztiak. Izan daiteke altzari koloretsua aukeratzea eta inguruko hornidura neutroagoa izatea. Beste aukera bat da sofa neutroa izatea eta horren inguruko elementuei protagonismo handiagoa ematea. Argi natural asko dagoen egongeletan argiteriari ez zaio hain garrantzi handia eman behar. Baina, beste kasuetan, argiaren planifikazioa ere diseinua-ren gakoetako bat izaten da. Bestalde, telebistak ez du egongelako dekorazioa baldintzatu behar. Ez da zertan ezkutatu, baina ez da elementurik garrantzitsuen izan behar.

Egongela



ATERPE ARROTZA
EGUR ERAIKUNTZAK · TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar
635 74 84 65

www.carpinteriaaterpe.com

Ander Maiztegi
655 73 75 51

lizentziak, proiektuak eta obraren zuzendaritza

jazz solutions

barne diseinua
lan guneak
kudeaketa bisuala

Durangoko Plateruen Plaza, 12 bajo - Durango

94 621 59 64
www.jazzsolutions.es

R.E.A.:15/48/0014485
K.Z.: 0544-BI



Gaztelu-Iturri
ARKITEKTURA

Oin berriko proiektuak _____
Eraikinen birgaitze proiektuak _____
Jarduera lizentziak _____
Obra-zuzendaritza _____
Barne diseinua _____
Erreformak _____

BIRGAITZE ETA EGOKITZAPEN PROIEKTUAK



HOBEEKUNTZA ENERGETIKOA



BARNE DISEINUA






Logela

Logela aldatzen

Sarritan logelari ez diogu merezi duen arreta ipintzen. Pauso gutxi batzuekin zure gela guztiz aldatzeko aukera duzu. Horrela, espazio hori distiratzeko lortuko duzu. Gainera, aldaketa hauekin gusturago lo egingo duzu. Material naturalekin egindako izarak ipintzea da lehenengo pausoa. Kotoia edo linoa izan daiteke. Kolore neutroak aukeratuta ez duzu hutsik egingo. Argiari dagokionez, argiztapen orokorragaz batera, irakurtzeko argi zuzen bat ere izan behar da. Helburua erlaxatzea bada, logelan teknologia saihestea gomendatzen da.



Mallabiena



**ITURGINTZA, GASA,
BEROGAILUA, ERAIKUNTZA, S.L.**

Mallabiena industrialdea, 6 - 48215 IURRETA
Tel.: 946 818 862 / 946 816 051 / mallabiena@mallabiena.com
www.mallabiena.com

BILTEGIA
UAI Industriagunea, 2
C
48215 IURRETA
Tel.: 946 816 051

**ERAKUSKETA
DENDA**
Plateruen Plaza, z/g.
48200 DURANGO
Tel.: 946 810 693

OiZ

**ITURGINTZA
GASA BEROGAILUAK
ERAIKUNTZA S.L.**

suministrosoiz@suministrosoiz.com
www.suministrosoiz.com

**SANEAMENDUA, LOZA, GASA, BEROGAILUAK,
BAINUGELARAKO ALTZARIAK**



José David Espinosa Gonzalez

**LEUNKETAK eta
BERNIZADURAK**

OHOLTZA BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
PARKET EZARPENAK, OHOL ETA BALDOSA GAINEAN

Tel. 94 684 25 17
Mugikorra (Jose David) 687 537 732
jose.pinky@yahoo.com

Bº Artikas, 26 - 48288 Ispaster
Avd. San Andres 30, 1ºD- 48250 Zaldibar

LAGOI S.L.

**MOTA
GUZTIETAKO
ZERAMIKAK**

Aholkularitza
pertsonalizatua

Eraikuntzarako
materialak



SUOMI - Astolabeitia kalea, 9 - Abadiño - Tel.: 672 209 355

BILTEGIA ETA ERAKUSKETA





**AROTZERIA
OROKORREAN**

Aratz Salazar Bilbao
Telf. 647 21 07 88 • arotxin@gmail.com
ELORRIO 48230 Bizkaia

**Pintura guztiak
ez dira berdinak.
Uno Zero.**

Bakteriorik gabe • Lizunik gabe • Usainik gabe • Emisiorik gabe



MONTÓ
profesional

DURANGO MARGOAK


DURANGO MARGOAK
Askatasun Etorbidea, 9
DURANGO
Tel.: 946 40 88 20
www.durangomargoak.com

izei®

ETXE PERTSOLANIZATUAK,
NEURRIRA EGINDAKO
ALTZARIEKIN.
SARTU ETA LASAI
ESKATU AURREKONTUA.



Intxaurrondo 10, Durango
Tel.: 94 681 59 94
decoradores@izeidecoracion.com



Komun originala

Komun moderno eta funtzionalek elementu uztarketa handia egiten dute. Zura, harria, baldosa bereziak, diseinuzko zeramika eta pastelari ginga jartzeko... loreak. Bestalde, diseinua egiterakoan komunean baten diren produktuak zelan bildu pentsatu behar da. Komunean ordena apur bat mantentzeko modua izaten da. Askotan, komuna argi gutxien duen espazioa izaten da, leiho barik. Kasu horretan, argiteriari ere dagokion garrantzia eman beharko zaio.

Komuna



eka 20
arkitektura

Silvia Urrutxi Arkarazo

Errekakale 20, 2. A - Elorrio
Tel 946 231 847 · 699 356 607 · 649 955 778




TAKET Sukaldeko eta bainugelako altzariak

Fabrikazio propioa eta sukaldeen banatzaileak **fiona**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

  www.cocitaket09.com
www.cocinasfiona.com



APAINKETAK
ROYUELA

Jokatu zure espazioekin modu xume eta pertsonalizatuan

Kalebarria, 40 Durango
Tel.: 946 810 582 • info@royuela.biz



Sukaldeen mamia

Espazio txiki batean, sukaldeak xarma handia izan dezake, zelan egin asmatzen baduzu. Biltegi moduan funtzionatuko duten altzariak ondo aukeratzea ezinbestekoa da, batez ere sukalde txikia bada. Kasu horretan, egongelarekin integratutako sukaldeak bada, espazio zabalagoaren sentsazioa emango du.



Sukaldea



leike aroztegia & diseinua

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com · Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com







Etxetxu
Barne Diseinua



San Pedro kalea, 22' bekoa
48340, Zornotza
info@etxetxu.es

T: 946 960 433
M: 613 152 325 (Conce)
M: 613 152 369 (Itxaso)

- Sofak
- Alfombrak
- Altzariak oro har
- Argiztapena
- Dekorazioa

- Dekorazio-proiektuak
- Eraberritzeak
- Sukaldeak
- Komunak
- Horma-armairuak




Antonio Piriz

ALBAÑILERIA

94 681 76 71
609 43 43 02

San RoKe, 8 - 6º B
48200 DURANGO





bed's



Zure atsedenean pentsatzeko sasoia da
Bisita gaitzazu!

K | OHE-OINARRIAK | BURKOAK | OHEKO ARROPA

Zure premiari erantzuteko prest izango gara:
bed's koltxoi - denda
Alluitz 1, Durango
T. 944 005 980

KOLTXOIAK | OHE-OINARRIAK | BURKOAK | OHEKO ARROPA



Karmelo Agirre

Barne Diseinua

kolegiatu zenbakia 183 C.O.D.D.B.

Proiektuak, **etxebizitzak**, komertzioak, **ofizinak**,
dekorazio integrala

karmelointeriorismo@gmail.com

610 501 086



MY SPACES



'Winona & Grace'

ANTZERKIA **ELORRIO** :: Maiatzak 27

Khea Ziater konpainiaren azken obra ikusteko aukera egongo da Arriolan

Aktore gazte bi zuzendari eza-gun baten etxean esnatuko dira gau festa zoro baten ondoren; burua nahastuta eta apur bat mozkor oraindino, bakarrik eta apartamentuan giltzapetuta daudela konturatuko dira. Hori du abiapuntu Khea Ziater konpainiak martxoan estreinatu zuen *Winona & Grace* obrak.

Patua onartu eta denbora tar-te hori elkarregaz bizitzea erabakiko dute antzezlaneko pro-

tagonista biek, elkar deskubritzeko eta ikusleek ere nortzuk diren ezagutzeko balioko duten ordu batzuk: gizarte eta lanpostu kapitalista eta konpetitibo honetan euren tokia bilatzeko borrokan dabiltzan emakume gazte bi. Arriola antzokian taularatuko dute antzezlan, gaur, 20:00etan. Ainhoa Artetxe eta Grace Doniz igoko dira oholtza gainera, Alex Gerediagaren zuzendaritzapean.

Maiatzaren 27an

BERRIZ **Asentzio jaiak**
Irrintzi ikastaroa, 17:00etan,
Andikoa auzoan.
Kontzertua: Txomin Artola,
20:00etan, Santutegian.

ELORRIO **ekintza**
Haurren zuhaitz landaketa,
17:00etatik 19:00etara,
Ganondo parkean. OinHerri
Herri Hezitzailea ekimenaren
barruan antolaturiko ekintza.

IURRETA **ipuinak**
‘Ipuinak jo eta musikak kontatu’ (Badut taldea)
ipuin kontaketa musikatua,
17:00etan, herri bibliotekan.

IURRETA **ipuinak**
‘Sicalipsis. Palabra de Eros’, helduentzako ahozko
narrazioa, 19:00etan, herri
bibliotekan.

MALLABIA **olinpiadak**
Olinpiadak, 5etik 16
urtera arteko umeentzat,
16:15ean, eskoletan. Kultur
hamabostaldiaren barruan.

ZORNOTZA **antzerkia**
‘Bidean bidai’ (Dantzaka Zirko Kabareta), 20:00etan,
Zornotza Aretoan.

Maiatzaren 28an

BERRIZ **Asentzio jaiak**
Donien Atxa jasotzea,
18:00etan, Andikoa auzoan.
Bertso saioa: Oihana Iguaran eta Igor Elortza,
20:00etan. Gai-jartzaileak:
Idoia Barcelo eta Miren
Amuriza.

DURANGO **berbaldia**
Hitzez eta ahotsez: Joseba Sarrionandiaren **berbaldia**,
12:00etan, Arte eta Historia
museoan.

ELORRIO **musika**
Kontzertua: Gigante + Han,
22:30ean, Ateneoan.

MALLABIA **musika**
Udaberriko kontzertua: Tenpora taldea + Mendibil Abesbatza, 19:00etan, elizan.
Kultur hamabostaldiaren
barruan antolaturiko
kontzertua.

Maiatzaren 29an

BERRIZ **Asentzio jaiak**
Meza nagusia, 12:00etan,
Andikoan.
Iremiñe dantza taldeko dantzarien saioa, 13:00etan.
Umeentzako jolasak eta txokolatada, 17:00etan.
Erromeria: Mirari eta Aintzane, 18:00etan.
Bolo joko txapelketa,
20:00etan. Ondoren, jaietako
zozketa txartelen sari
banaketa.

MALLABIA **ikuskizuna**
Olinpiadak, 5etik 16 urtera
bitarteko umeei zuzenduta,
10:30ean, eskoletan.
‘The Spoilem Girls’ 60ko
hamarkadako ikuskizuna,
12:30ean, anfiteatroan. Kultur
hamabostaldiaren barruan
antolatutako ekintzak.

Ekainaren 3an

IURRETA **antzerkia**
‘Conservando memoria’ (El Patio konpainia), 19:00etan,
Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA **antzerkia**
‘Amua’ (Axut! eta Artedrama konpainiak),
20:00etan, Zornotza Aretoan.

Ekainaren 3ra bitartean

ZORNOTZA **erakusketa**
‘Amorebieta-Etxano. Memoria Historikoa’, Zelaieta
Zentroan.

Ekainaren 4an

DURANGO **musika**
Bogoroditsie abesbatza eta Gerardo Rifón organista,
Sanfausto elizan. Arandoño
kultur elkartearen 25.
urteurrena.

DURANGO **kontzertua**
Mikel Urdangarin, 22:00etan,
Landako Gunean.

Ekainaren 5ean

DURANGO **mendi irteera**
Mugarri Eguna, 09:00etan,
Andra Mari elizpean. Izena
emateko azken eguna,
ekainaren 3a. Informazio

gehiagorako 946 030 030
telefono zenbakira deitu
daiteke edo 630 815 243
whatsap zenbakira idatzi. 9
kilometroko ibilbidea egingo
dute: Andra Mari-Tabira-
Artabila bidea-Arrokua-Astola-
Landako.

Ekainaren 12ra bitartean

DURANGO **erakusketa**
Ikastetxeen arteko XIII. Marrazketa, Margo eta Eskulanen Lehiaketako lanak, Ezkurdi erakustazokan.

Uztailera bitartean

DURANGO **erakusketa**
‘Picassotik Barcelóra’, Arte
eta Historia Museoan.

Irailaren 16ra bitartean

ELORRIO **ikastaroa**
Commercial Dance dantza ikastaroa, urritik ekainera
bitarteko martitzenetan,
20:15etik 21:15era. 16
urtetik gorakoei zuzenduriko
ikastaroa. Iturri kultur etxean,
Herriarren Arretarako
Zerbitzuan (HAZ) eta udaleko
webgunean eskuratu
daitekeen izen-emate orria
irailaren 16a baino lehenago
aurkeztu beharko da.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri
gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo
deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: **Berriz**
KULTUR ETXEA

• **Fireheart**
barikua 27: 17:00
domeka 29: 17:00

:: **Durango**
ZUGAZA ZINEMA

• **Top Gun: Maverick**
barikua 27: 19:30 / 21:00
zapatua 28: 17:30 / 20:30
domeka 29: 17:00 / 19:00
astelehena 30: 19:00
martitzena 31: 19:00
eguzatena 1: 18:30

• **Maigret**
barikua 27: 19:00
zapatua 28: 18:00
domeka 29: 19:30
astelehena 30: 18:00
martitzena 31: 18:00 / 20:15
eguzatena 1: 19:00

• **El comensal**
barikua 20: 19:00
zapatua 21: 18:00/20:30
domeka 22: 19:00
astelehena 23: 18:00/20:15
martitzena 24: 18:00
eguzatena 25: 19:00

• **Juegos de asesinos**
barikua 27: 21:00
zapatua 28: 20:30
domeka 29: 17:00
astelehena 30: 20:15
martitzena 31: 20:15

:: **Elorrio**
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Red Rocket**
zapatua 28: 20:00
domeka 29: 20:00
astelehena 30: 20:00

:: **Zornotza**
ZORNOTZA ARETOA

• **Doctor Strange en el multiverso de la locura**
barikua 28: 20:00
domeka 29: 20:00
astelehena 30: 20:15

• **Elkano lehen mundu bira**
domeka 29: 17:00

• **Apaiz kartzela**
martitzena 31: 20:15



“Kantak naturaltasunez konposatu ditugu; ahotsak gehitzea azken prozesua izan da, gehien kostatu zaiguna”

Han talde elorriarrak 'Beratu' diskoa kaleratu du aurten; hirukote formatuan kaleratu duen lehenengoa da eta Gorka Molerok hartu du abesteko ardura



Gorka Molero, Miguel Leon eta Karlos Gomez.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Zazpi urte igaro dira Han taldea sortu zenetik. Gorka Molerok eta Karlos Gomezek eman zituzten lehenengo pausoak, aurretik Mokauan elkarregaz egon ondoren. Gero, Miguel Leon batu zitzairen, eta, handik gutxira, Nerea Lersundi abeslaria gehitu zen taldera. Lehenengo lana kaleratu eta kontzertu batzuk jo ostean, Lersundik taldea utzi zuen. Saiakera desberdinak tarteko, hiruko lez jarraitzea erabaki zuten elorriarrek, eta ibilbide horretan ondutako abestiek osatzen dute 'Beratu' diskoa. Bonberenea Ekintzak zigiluagaz kaleratu dute. Zapatuan aurkeztuko dute Ateneon, Giente gasteiztarrekin batera.

'Beratu' Ateneon aurkeztuko duzue. Gogotsu?

Bai, oso gogotsu. Urte dezente pasatu da azken kontzertua eman genuenetik eta zuzenean jotzeko oso gogotsu gaude, aspalditik. Gainera, hirukote formatuan zuzenean zelan moldatzen garen

ikusi gura dugu. Urduri ere bagaude, jakina.

Hirukote lez jarraituko duzuela iragarri zenuten orain denbora bat. Zelakoa izan da trantsizioa? Asko kostatu zaizue erabakia hartzea ala naturala izan da?

Zazpi urte pasatu dira gure lehenengo lana aurkeztu genuenetik. Hainbat kontzertu jo eta gero, Nerea Lersundik taldea utzi zuen.

Musikalki konposatzen jarraitu genuen, ahotsean laugarren taldekide bat izango genuen ilusioagaz, baina urteak pasatu ahala eta hainbat lagunekin ahalegindu eta gero, hirukote lez aurrera egitea erabaki genuen.

Idea musical guztiak kanta bihurtzea eta grabatzea izan da gure erronka, ahotsa gure gain hartuta.

Zergaitik ipini diozue 'Beratu' izena diskoari?

Diskoko kantak aspaldiko ideia musikalak dira, eta, beraz, urte hauetan guztietan kantak beratzen egon direla esan genezake.

Hortik dator diskoaren izenburua.

Abestietariko batean Nereak abesten du. Abesti zaharra da?

Ez da beragaz landuta geneukan abesti zahar bat. Grabazio prozesua martxan zela, kanta batzuetan

korua egitera edo bigarren ahotsetan parte hartzera animatu zen. Diskoaren diseinuagaz ere asko lagundu digu.

Oso lan freskoa eta desberdina iruditu zait, esperimentalagoa edo. Horrela da?

Ez dugu intentzio berezirik ipini konposizioan. Musikalki, kantak naturaltasunez konposatzen joan gara. Ahotsak gehitzea azken prozesua izan da, gehien kostatu zaiguna izan dela esango nuke.

Kantak aspaldiko ideia musikalak dira, eta, beraz, urte hauetan guztietan beratzen egon direla esan genezake. Hortik dator diskoaren izenburua

Non grabatu duzue? Diskoa formatu fisikoan kaleratu duzue?

2021eko ekainean grabatu genuen, entsegu lokalean, eta nahasketak abenduko azken egunetan egin genituen. Prozesu guztia etxekoan artean eta gure baliabideak erabilia egin dugu. Teknikari lanean, Migel Alonso aritu da.

Hasieran, disko digitalean bakarrik kaleratzea pentsatu genuen, baina, azkenean, formatu fisikoan ere kaleratuko dugu, Bonberenea Ekintzak-en eskutik. **Ateneoko kontzertuaz gainera, Tolosan ere egongo zarete.**

Bai, Bonberenea Ekintzak-ek 20 urte betetzen ditu eta denbora honetan guztian argitaratu dituzten talde batzuekin ospakizun jaialdia antolatu dute. 14-15 taldek joko dugu eta eszenatoki bitan banatuko da jaialdia. Talde bakoitza ordu erdiz arituko da. Ekainaren 4an izango da, Bonberenea gazte-txean.

Beste nonbait?

Oraingoz, data bi horiek baino ez ditugu lotu.

Zapatuan, Han eta Giente taldeen post-hardcore doinuek hartuko dute Ateneo, denboraldi berriko hirugarren emanaldian

Han talde elorriarrak 35 minutu inguruko bidaia proposatzen du bere bigarren lanean, zortzi abestitan zehar. Aurkezpen kontzerturako, post-hardcore doinuek uztartzen dituen Giente izango dute taulakide. Gasteiztarrek Hamaika diskoa aurkeztuko dute, euren ibilbideko bigarrena; Han taldearen modura, Bonberenea Ekintzak zigiluagaz kaleratu dute lana. Gientekoek iaz grabatu zuten diskoa, Karlos Osinagagaz.

Lehenengo diskoan, Fugazi, Rites of Spring, Dut eta At the Drive-In taldeekin alderatu zituzten, jorratzen dituzten doinuengaitik. Bigarren diskoaren bira pandemiak baldintzatu duen arren, eduki dute tarte aurretik Durangaldea zapaltzeko; abenduan, Ahotsenean jo zuten.

Emanaldirako sarrerak 8 euroan salduko dituzte (edari bat barne). Kontzertuak 22:30ean hasiko dira.



Gai librean

Ni ez naiz aldatuko (esan zuen...)

Igorrek. Bai, nik esan izan dut ez naizela aldatuko. Esaten nien lagunei, esaten nien bizitzako gomendio moral eta filosofiko guztiak ematen zizkidatenei, eta, batez ere, esaten nion neure buruari. Ez naiz bakarria izango hori esanda dagoena, eta ez naiz bakarria izango norbere berbak jan behar izan dituen.

“Ez naiz aldatuko” esan nuen unibertsitatera sartu nintzenean. Uste dut unibertsitatetik atera zen Igorrek belarritik tira egingo liokeela bertara sartutako Igorri. “Ez naiz aldatuko” esan nuen Mexikora Erasmus egitera joan orduko. Eguzkiak ilundutako azaletik zeukanetik hasi, eta edonora 5 minutu lehenago heltzen zena 10 minutu berandu ailegatzen zen Igorrerraino aldatu nintzen. “Ez naiz aldatuko” esan nuen bikotekideagaz hasi berri. Nire musika, nire txistak, nire jakintzak bere egin dituen bezala, neure egin ditut bereak.

Ibai Zabalak orain dela aste bi Lauhortzako zutabea idatzitako ‘Traña, alajaina’ artikulua datorkit bu-



Igor
Galarza Intxausti
Kazetaria

Ez naiz bakarria izango hori esanda dagoena, eta ez naiz bakarria izango norbere berbak jan behar izan dituen

Demagun, kultura batek esango baligu ez dela inoiz aldatuko. Ni, garai batean, horren aldekoa nintzen

rura. Gure auzoko kultura tabernaren eta festaren bueltan oinarritzen denik ez dut esango, baina bultzada handi bat ematen ez dionik ere ez. Eta taberna zein festa giro horietan alaketak

igartzen hasi naiz. Egun batean, tabernan geunden gazteok tabernariak jarritako futbol partidua kendu eta pilota partidua jar zezan eskatu genuen. Ez nuen espero bertan zeuden gazte haiengandik pilota futbolaren gainetik jartzea.

Antzeko zerbait gertatu zait niri. “Bertsolari hau ez zait sekula gustatuko” esaten nuen, eta gaur egun gogokoenerikoa dut. “Ez zait sekula gustatuko Dupla, Zetak, Nogen... Hori eta hura beti izango ditut neure gustuko” esaten nuen. Ba, gustatzen ez zitzaizkidanen disko eta kanta guztiak ez ditut gogoko, gustoko ditudan taldeak askorik aldatu ez diren bezala. Baina ari naiz kamaleonizatzen. Eta nire talde gustukoenaren abesti batek dioen legez, “ni ez naiz aldatuko (esan zuen kamaleoiak)”.

Demagun, kultura batek esango baligu ez dela inoiz aldatuko. Ni, garai batean, horren aldekoa nintzen. Kultura, ohitura, pertsona zein kolektibo orok, ordea, aldaketa konstantea behar du, orekari euts diezaion. Aldatzea derrigorrezkoa da, aldatu gabe irautea, ezinezkoa.

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta

“Tabirakoko filosofia gurasoengandik jaso nuen, barru-barruan eraman dut eta gazteei transmititzen ahalegindu naiz”

Oraindino sasoi betean dagoen arren, lana eta kirola uztartzeko zailtasunak erretiroa hartzera eraman du Ainhoa Baqué

SASKIBALOIA • JOSEBA DERTEANO

Umetan Jesuitetan jokatu zuen eta, harrezkero, Tabirakon egin du bere ibilbide osoa. Talde nagusiko erreferenteetarikoa bat izan da hamarkada batean. Baina orain agur esateko sasoi heldu zaio eta ligako azken partiduan omendu egin zuten.

Zergaitik hartu duzu saskibaloia uzteko erabakia?

Arrazoi nagusia lan kontuak dira. Txandaka lan egiten dut eta lana entrenamenduekin eta partiduekin uztartzea gatazka izan da. Hiru urte daramatzat horrela. Saskibaloia asko esan gura du niretzat, baina, azkeneko, nekatu egiten zara. Pozik uzten dut saskibaloia, ez nago nekatuta, baina ordua zen.

Azkenengo partiduan omenaldia egin zizuten. Itxaroten zenuen moduko eguna izan zen?

Ez nuen espero eta oso hunkigarria izan zen. Zenbat negar egin nuen! Nire familia, lagunak, nigar jokatu izan duten jokalaria, gaur egungo jokalaria... Eurak emoziozaturik ikusten nituen eta horrek neu emozioztatzen ninduen. Berezia izan zen.

Jokalari lez ezin bada, entrenatzaile lanetan jarraitzea gustatuko litzazuke?

Gazteagotan talde bat entrenatzen aritu nintzen, baina ikusi dut ez dela nire bokazioa. Niri jokatzeko gustatzen zait. Kiroldegira joaten eta animoak ematen jarraituko dut, baina kantxa barrukoa amaitu da.

Taldeko lider bat izan zara. Zure

hutsunea asko igarriko dela uste duzu?

Adin bereko lau jokalarik urte dezente eman dugu elkarregaz: Gorane Urainek, Mirari Aldekoak, Ane Garitaonandiak eta laurok. Nik utzi ostean, laukote horretatik Gorane geratzen da orain. Bera ere lider bat da eta seguru nago lan bikaina egingo duela.

Matematikaren teorema batzuk agertzen dira; hori matematikarion ikuspuntutik ederra da

Zelako taldea uzten duzu?

Talde batu bat uzten dut, adin askotako jokalaria dituen. Gazteenetik nagusienera ia hamar urteko aldea dago. Nagusiek gazteenei irakasten diete, horrela izan da beti. Beste ezaugarri bat da ez dagoela besteen gainetik dagoen izar bat. Jokalari bakoitzak bere trebetasunak ditu. Jokalari batek bere egunik onena ez badu, beste norbaitek hartuko du erantzukizuna. Bata bestearengan babestu daiteke. Kantxatik kanpora kuadrilla bat gara; bazkariak, afariak... denerik egiten dugu.

Zeren falta igarriko duzu gehien?

Taldekidetaren artean izan dugun giroaren falta. Kiroldegira heldu, aldageletara sartu, eurekin berbertan hasi eta deskonektatu egiten nuen. Kantxa barruan, oster, gorputza nekatzearen falta. Gero,



Ainhoa Baqué Atxotegi

Tabirako Baqué taldeko jokalaria izan da

DURANGO | 1995



etxera heldu eta erlaxatuta sentitzen nintzen. Terapia modura balio zidan.

Eta hori guztia zezag ordezkatuko duzu?

18 urte eman ditut asteburuko partiduetara eta astegunetan entrenamenduetara joaten. Ez dakit zezag ordezkatuko dudana, egia esanda.

Ez ei da ona gustuko ezer bat-batean uztea.

(Barreak). Eta horixe da nire estrategia. Liga amaitu dugu, baina oraindik denboraldi osteko entrenamenduetan jarraitzen dugu. Uda arte entrenatzen jarraituko dut.

Aita, Emilio Baqué, Tabirakoko jokalaria, entrenatzaile eta erreferente izan zen; Ama, Laura Atxotegi, Tabirakoko jokalaria mitikoa izana da. Tabirakoko sentimendua haiengandik datorkizu?

Bai, umetatik ez neukan dudarik saskibaloian jokatu gura nuela. Jaio nintzenean, Tabirakoko jantzia erregalatu ziguten. Oraindino hantxe daukat, gordeta. Tabirakoren filosofia gurasoengandik jaso nuen, barru-barruan eraman dut eta taldekideei transmititzen ahalegindu naiz.

2016an irabazitako Lauko Finala izan da kantxa barruan bizi izan duzun unerik gozoenetarikoa bat?

Bai, Leire Intxaustik azken segunduan sartu zuen saskiratze hura partidua bigarren luzapena jokatzeke... Landako Kiroldegia goraino beteta... Oso oroitzapen ona dut. Hainbeste partidu jokatuta hainbat momentu on bizitzeko aukera izan dut.

Zu jokalaria gazteen erreferentea izan zaren moduan, zeintzuk izan dira zure erreferenteak?

Nire erreferente askoz jokatzeko zortea izan dut. Marina eta Nuria Murtuagaz, Alaia Berganzagaz, Marian Fernandezegaz, Miren eta Matxalen Mancisidorregaz... Nik gazteei erakutsi didana euren-gandik ikasi dut.



Seguros Bilbao

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Alpino Tabirak bederatzi ibilbide jasotzen dituen 'Ermitak bide, Durangaldean bizi' liburua kaleratu du

Ibilbideak 10etik 20 kilometrora artekoak dira. "Erraz irakurri eta gozatzeko moduko liburua da", Alpinoko kideen arabera



Alpiko Tabirako kideak Goienkalean duten lokalean, eguazteneko prentsaurrekoan.

MENDIA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Alpino Tabira Mendi Klubak *Ermitak bide, Durangaldea bizi* liburua aurkeztu du asteon. Liburua Durangaldeko bederatzi ibilbidek osatzen dute, denak ere bizkaieraz kontatuak eta gaztelaniara itzuliak. "Erraz irakurri eta gozatzeko moduko liburua da, xehetasun txikiz betea. Durangaldea ibiliaz ezagutzera bultzatu gura dugu, ondarea ezagutu eta bere garrantzia azpimarratu;

maitatu, berau zaintzeko gogoaz piztu", azaldu zuten Alpino Tabirako kideek eguaztenean egindako aurkezpenean.

Orain 36 urteko *Mendi-kultur zeharbideak* ibilbide sortaren funtsa berreskuratuz, mendi taldekoek urtean ibilbide bat planteatu izan dute euren ekintzetan. Eta, orain, une egokia iruditu zaie egindako lan hori bildu, eguneratu eta liburu formatuan kaleratu herriari eskaintzeko.

Liburuko ibilbide bakoitzean, igarotzen diren zenbait ondarkeri erreferentzia egiten zaie

"Lan hau eginez, konturatu gara gure ondare natural eta kulturala hondatzen joan dela; askotan, desagertzera. Horre-

gaitik, liburuak hausnarketarako bide bat zabaltzea gura dugu; irakurlea ibiltzera bultzatu gura dugu, inguruko ondarea ezagutzeko, bere garrantziaz jabetu eta berau mantentzeko beharra sentitzeko", adierazi zuten Alpino Tabirako kideek eguaztenean.

Ermitak, hasiera edo helmuga

Ibilbideei lotura bat eman guran, ermitak baliatu dituzte, gertukoak eta aipaturiko ondarearen parte ere badirenak. Bederatzi ibilbideetarik gehienek Durangon dute irteera edo helmuga, eta, garraio publikoaren erabilera uztartuz, erraz egin daitezke. Liburuan, ibilbide bakoitzeko tokirik interesgarrienak, atsedeneak, iturriak eta bestelako osagai batzuk azpimarratzen dira. Gehigarri modura, igarotzen diren zenbait ondarkeri erreferentzia egiten zaie, jendearen testigantzetan edo aurkituriko askotariko artikuluetan oinarrituta.

Ibilbideok 10etik 20 kilometrora artekoak dira, eta horien zailtasun maila MIDE balioztapean oinarrituta definitu dituzte. "Orokorrean, urteko edozein momentutan egin daitezke, oso-rik, familian zein lagun artean", azaldu zuten.

"Amorebietaren egungo egoera ekonomikoa ona dela esan dezakegu"



Jon Larrea, prentsaurrekoan.

FUTBOLA • J.D.

Amorebieta futbol kluba Bigarren Mailatik RFEF Mailara jaitsi da, eta, asteon, Jon Larrea klubeko presidenteak prentsaurrekoa egin du denboraldiko balorazioa egiteko. "Ez dugu helburua bete, baina oso harro gaude egindako lanagaz", adierazi du. Bera buru duen zuzendaritzak klubaren ardura hartu zuenean, taldea larri zegoen ekonomikoki, eta, orain, oster, ondo dagoela esan du. "Horrelako liga batean egoteak diru sarrera garrantzitsuak dakartza. Guk hasieratik argi genuen dirua eduki arren ez ginela zoraturiko. Etxeko jokalariekin jokatzeko filosofiagaz jarraitu dugu. Amorebietaren egungo egoera ekonomikoa ona dela esan dezakegu", azaldu du. Bazkideen batzarrean emango dituzte egoera ekonomikoaren gaineko xehetasun guztiak.

Jokaldia

Badator

Euskaldunok zorioneko gaude. Korrikari dagokionez bai, behintzat. Udaberriarekin batera Korrika etorri zitzaigun eta korrika egin genuen Amurriotik Donostiara, hamaika egunez, euripean, elurretan, eguzkitan, euskara ahoan eta bihotzean. Mendiko korrikalariok eta euskal mendizaleok beste hitzordu nagusi bat dugu domeka honetan, maiatzak 29. Bai, badator. Badator mendi lasterketen lurrikara, hainbeste denboran itxaroten egon garen mendi lasterketa: Zegama-Aizkorri mendi maratokia.

Munduko mendi korrikalaririk onenak bertan izango ditugu, denek egon gura dute eta lurrikararen epizentroan, Zegaman. Gutxi batzuk faltako diren arren, aurtengo edizioak inoizko mailarik handiena izango du. Hori bai, sorpresen urtea izan daiteke, batek daki.



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak

Gura nuke euskaldunen bat podiumeko lehenengo postuetan ikustea, baina oso gatxa izango da

Aurtengo nobedadeetarikoa bat korrikalari afrikarrak izango dira. Zazpi bat kenyar etorriko dira

Kontuak kontu, Zegamako txapela oso garesti egongo da, mutiletan zein nesketan. Ez txapela bakarrik. Baita hamar edo hogeitaz onenen artean sartzea ere. Gura nuke euskaldunen bat podiumeko lehenengo postuetan ikustea, baina oso gatxa izango da. Halako mailarekin, oso posible da errekorra apurtzea, neskena eta mutilena. Lokatzaren arabera

izango da hori. Ikusi egin behar ere zein eguraldi egiten duen egunean bertan.

Aurtengo nobedadeetarikoa bat korrikalari afrikarrak izango dira. Zazpi bat kenyar etorriko dira eta ea zelan moldatzen diren gure mendietan. Ederra litzateke emaitza ona lortzea eta eurak ere urtero etortzea, udaberriro Afrika aldetik gure teilatupeko habiara etortzen diren elaien antzera.

Batez ere zaleek egiten dute berezi Zegama-Aizkorri maratokia eta aurtun ere giro aparta biziko dugu, ehunka mendizalaren animoei eskerrak. Lasterketa bertatik bertara ikusi ezin duenak telebistatik zuzenean jarraitzeko aukera izango du, ETB1en eta ETB4n euskaraz, Teledeporten eta Zegama-Aizkorriko youtube kanalean gaztelaniaz, eta TV3-n katalanez. Has dadila ikuskizuna, has dadila festa. Aurtengoa ere kolosala izango da.

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// ERAIKUNTZA BERRIA

IURRETA: Promozio berria. Udaletxe ondoan. 2 eta 3 logelako etxebizitzak. 2 komun. Terraza. Trastelekua eta garajea. Kalitatezko materialak. **C.E.E=A 230.000-TIK HASITA.**

// AUKERA

IURRETA: Uralde. Etxebizitza altua. 3 logela eta komuna. Igogailua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Berogailua. **140.000 €**

ZALDIBAR: Bilbao etorbidea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Eguzkitsua. Hegoaldea. **C.E.E=F 118.000 €**

IURRETA: Dantzari. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **C.E.E= F 135.000€**

MATIENA: 86 m². 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. Terraza. Hegoaldea. **C.E.E 142.000 €.**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Terraza. Garajea. **C.E.E=D 225.200 €**

MURUETA TORRE: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela terrazarekin. Ganbara. Trastelekua eta garajea. **C.E.E=E**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. **C.E.E:=E 180.000 €**

BERRIZ: 80 m². 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Terraza. Argitsua. **C.E.E=E 110.000 €**

ZALDIBAR: Fueros kalea. 114 m². Altua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta aire egokitua. 2 kotxerentzako garaje itxia. 42 m²-ko ganbara, etxebizitzarekin bat egiteko aukerarekin. Txokoa eta estudioa. **C.E.E=F 252.000 €**

ASKATASUN ETORBIDEA: 82 m². 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza handia. Hegoaldea. Trastelekua. Garajea aukeran. **C.E.E=E 235.000 €**

DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. **C.E.E=F 145.000 €.**

IURRETA: Bixente Kapanaga. 92 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. **C.E.E=G 190.000 €**

F.J.DE ZUMARRAGA: Erdialdean. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela-jangela. Terraza. **C.E.E=E 195.000 €**

ASTARLOA (JESUITAK): 100 m². 3 logela, komuna eta sukaldea. Terraza. Ganbara. **C.E.E=E 160.000 €**

ABADIÑO: Etxebizitza. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela, eta egongela. Terraza. Lokal komertziala. Garajea. Aparkaleku pribatua. Txokoa. 300 m2-ko lorategia. Lanabesentzako txabola. **390.000 €.**

MADALENA: 132 m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. 2 ganbara. Garajea eta bodega-trastelekua. **C.E.E=F 286.000 €**

EZKURDI: 175 m². 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E.=F 325.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 179.500 €**

MATIENA: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Igogailua. Ganbara. **CEE=G.120.000 €**

ZALDIBAR: Euskal Herria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 198.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.

DURANGO: San Fausto. 3 logela. Guztiz berriztatua. Bizitzera sartzeko moduan. **128.000 €.**

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m2-ko lur saila. Berrizatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.

//BULEGOAK ALOKAIKUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL

INDUSTRIALA ALOKAIKUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m2-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 73,77 m²
2 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Etxebizitza altua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hegoa- iparralde) Herriko irteeratik gertu, zonalde berdeak, zonalde lasaia. Egoera onean. 4,48 m²-ko ganbara barne. Garajearekin + 17.000 €. **235.000€ C.E.E:E**

ZALDIBAR 76 m²
3 logela
ARTIA: (2.007. urtean eraikia) 35 m²-ko terraza. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia eta terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Zonalde lasaia. Garaje itxia eta ganbara. Bizitzera sartzeko moduan. **228.000€ C.E.E:F**

DURANGO 67 m²
2 logela
MONAGO TORRE: Egongela, sukalde, despentsa eta komuna. 2 balkoi. EZIN HOBEA/ GUZTIZ BERRIZTUTA. (Instalazioak, leihoak, Gas Naturala, kristal bikoitzeko leihoak, haritzeko zoruak...). Etxe osoak kanpora ematen du (Ipar-hegoaldea) Argitsua eta erdigunetik gertu. ITE oraintsu pasatutakoa. **187.000€ C.E.E:E**

IURRETA 70 m²
3 logela
ZUBIAURRE: 70 m² + 43 m²-ko terraza. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta despentsa. Etxe erdiak kanpora ematen du. (ekialdea) Leku onean kokatuta. Hobekuntza batzuk behar ditu. **173.000 € C.E.E: F**

DURANGO 85 m²
3 logela
ASTEPE: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia eta galeria. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hego-mendebaldea). Leku onean kokatua. Garajea eta 6 m2-ko trastelekua. Argitsua. Ikuspegiak. **249.000 € C.E.E: Bidean**

ABADIÑO 70,4 m²
4 logela
ARLOZABAL: 70,4 m2. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. 10,82 m2-ko trastelekua eta 19,32 m2-ko garajea. **189.000 € C.E.E: Bidean**

//DURANGO

ARTEKALE KALEA: Logela, sukalde-egongela eta komuna. Igogailua. **150.000 € / E.E.Z=F**

ANTSO EZTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela, eta komuna. Balkoia. Ganbara eta igogailua. **160.000 € / E.E.Z=G**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z.=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **280.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzen 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZO: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 120.000 € ORAIN 105.000€ / E.E.Z=F**

MURGOITIO AUZO: Berreraikitzen baserria lurzorugaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **125.000 € / E.E.Z=F**

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZO: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

GONBILAZ AUZO: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

//ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

//GARAJEAK SALGAI

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

//BERRIAK

DURANGO

ARAMOTZ AUZUNEA. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **125.000 € / E.E.Z= G**

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 27 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO	ASTELEHENA, 30 · 09:00-09:00
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO
09:00-22:00	GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
ZAPATUA, 28 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZASARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
ETXEBARRIA MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO	MARTITZENA, 31 · 09:00-09:00
GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
09:00-13:30	GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
SARRIA SASIKOA 17, DURANGO	09:00-22:00
GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DE DIEGO INTXAURRONDO 22. - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZASARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO	EGUAZTENA, 1 09:00-09:00
NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO	NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO
CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO	09:00-22:00
BALENCIAGA EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZASARASKETA, DIEGO
RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZAMELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	EGUENA, 2 · 09:00-09:00
09:00-14:00	ETXEBARRIA MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO
IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 29 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZASARASKETA, DIEGO
SARRIA SASIKOA 17, DURANGO	LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	
09:00-22:00	

Zorion Agurrak



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Konturatzen zarenien datorren urtien 30ak eingo dozuzela... Zorixonak, **Hodei**, PPruen partez.



Zorionak, **Puce!** Badakigu igez itzelezko ilusiñue ein eutzule Anboton agertziek, eta aurten be hemen dau zure zorion agurre! Zure urtegune ondo pasau izena espero dogu. A! Ta ia noz inbitetan gaituzun trago batera.



Atxa ta Huebo, reality bat balego... Atxa ta Huebo, dantzari busca granjero! Jarraitu kuadrillan irribarreak sortzen. Zorixonak eta urte askotarako osasune!

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 24° / 12° ☀️

DOMEKA 🌡️ 23° / 11° ☀️

ASTELEHENA 🌡️ 24° / 11° ☁️

MARTITZENA 🌡️ 27° / 12° ☁️

EGUAZTENA 🌡️ 31° / 14° 🌧️

EGUENA 🌡️ 28° / 15° 🌧️



MAIATZAK 28
SAN MARKO AUZOAN
18:00 HIBAI ETXEBARRIA
eta jarraian auzokideekin luntx xume bat

Bertan behera!

Hibai Etxebarria

"Joskintzagaz disfrutatzen ez dudala ikusiz gero utzi egingo nuke"

'Laino danen gainetik' izenpean, Enaitz Lopezek umeentzako arropak josten ditu. Konbenio kalean du tailerra eta bertan egoten da josten, 17:00etatik 19:00etara



Enaitz Lopez
Berrioizabalgaitia

'Laino danen gainetik'

EIBAR | 1979

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Askotariko ehundura eta koloreta-ko oihal artean eroso sentitzen da Enaitz Lopez. Joskintza tallerreko apalak oihalez gainezka ditu. Alemaniatik eta Belgikatik ekarritako oihalak dira asko. Baita Arrasatetik ere. Zornotzan bizi den eibartarrak disfrutatu egiten du umeentzako arropak josten, eta hori horrela den bitartean jarraitu egingo du.

Noiz hasi zinen joskintzan?

Orain bederatzi urte, konponketak egiteko ikastaro bat egin nuen Zornotzan, eta joskintzak guztiz erakarri ninduen orduan. Interneten begira hasi nintzen, blogak jarraitzen, ikasten, oihal

dendak ikusten... Ikaragarri gustatzen zait oihalak erostea, larregi! Bada, mundu horretan murgildu nintzen, eta horren mende erori nintzen. Eta horretan nabil gaur egun ere.

Umeentzako arropak josten dituzu, enkarguz.

Hala da, bai. Ez dut arrazoi bat horretarako. Umeentzako oihalak dibertigarriagoak iruditzen zaizkit, eta umeentzako arropa erostera goazenen iruditzen zait dendetan eskaintzen den guztia berdintsua dela. Josten hasi nintzenean, nire seme-alabentzako arropak egiten nituen, zerbait berezia egin gura nien. Gero hasi nintzen enkarguz josten.

Umeentzako oihalak dibertigarriak iruditzen zaizkit, eta iruditzen zait dendetan eskaintzen den guztia berdintsua dela

Sare sozialen bitartez erakusten dituzu zeure lanak.

Hasieran, tailer modura saltzea zen asmoa, jendea bertara etorri eta oihala aukeratu ondoren arropa jostea. Neurri askotako jantziak izatea gustatzen zait, jendea era-askusteko, baina ez daukat arropa askorik aurretik josita, ez daukat astirik. Dena dela, ikusi nuen beharrezkoa zela sare sozialetan egotea,

jendeak zer egiten dudana ikusi dezan, ereduak izan ditzan. Horrek bertigoa ematen zidan hasieran, lan handia delako. Baina beharrezko ikusi nuen. Onartu behar dut jende gehiagok ezagutzen nauela, nire lana gehiago zabaldu dela sare soziales eskerrak.

'Laino danen gainetik'. Zer dago marka horren atzean?

Nahiko despistatua naiz, kaosean ibiltzen naiz, eta esaldi horregaz identifikatzen naiz (barrez). Jostea gustatzen zait, umeentzako arropa batez ere, eta gozotasun eta mimo osoz jositako jantzi berezi eta erosoak sortzea dut helburu. Eta bidean disfrutatzea, noski. Horrela ez dela ikusiz gero, momentu hori helduko balitz utzi egingo nuke. Arropa horietariko asko bakarrik dira gainera, ez ditudalako bi berdina egin.

Inoiz lanez lepo egon naizenean neure buruari gogoratu behar izan diot joskintza disfrutatzeko dela eta lasaitasunez hartu behar dudala

Gura zenuke joskintza zure ogibide bakarra izatea?

Zaletasuna baino gehiago da niretzat joskintza. Konpromiso batzuk ditut, kontuak egiten ikasi behar izan dut... baina ez da nire diru iturri bakarra. Hala ere, ez dut argi ofizio bihurtzerik gura dudana. Disfrutatzeari utziko diodan beldur naiz. Inoiz lanez lepo egon naizenean, enkarguak ezin denboraz amaitu, neure buruari gogoratu behar izan diot joskintza disfrutatzeko dela eta lasaitasunez hartu behar dudala.

Azoketan ere parte hartzen duzu?

Zornotzan egin denean parte hartu dut, eta Dinagu kolektiboaren Nomadak Gaitun! azokan ere parte hartu dut. Emakume artisau eta sortzaile sentitzen naiz, eta Dinagu oso proiektu polita iruditzen zait, aberasgarria. Emakume eta sortzaile garen desberdinok batzen gaitu eta batura horrek halako indarra ematen du, halako ilusioa, gogoia. Elkar ezagutzeko aukera dugu gainera.

Lauhortza

Mertxe Mugika
AEK



Heldu zein gazte, euskarra aurrera!

Askotan irakurri eta entzun izan dugu 2022ko urtea euskararen urtea izango dela. Esapide berria ez bada ere, uste dut beharrezkoa izaten dela noizbehinka gogoaraztea ez dagoela ezer ziurtatuta euskararen biziberritzean. Are gehiago, bi urtean pilatutako ezkortasun pandemikoan, euskarak kalea galdu egin du eta bada-gogoa kaleak berreskuratzeko; kapitulu triste bat zerratzeko beharra dugu, kalean berriro elkartzeko, gozatzeko, elkar babesteko... Euskararen aldeko ekimen nagusi bi dagoeneko egin dira: 22. Korrika eta Herri Urrats. Ekimen bietan nabaria izan da jendearen poztasuna.

Halaber, aurreko zapatuan Donostian gazteen eskutik etorritako manifestazioan milaka izan ziren euskararen alde bildutakoak, deialdiaren atzean mezu positiboa egon da, zerbaiten alde eta ez ezeren kontra. Esango nuke zapatuko hitzorduak ekarri duela haize freskoa: euskararen erabilera gazteen artean sustatzeko deia gazteek beraiek eginda, eta ez helduok geure pulpilotik esandakoari jarraituta. Sarritan esaten da gazteen artean euskararen erabilera eskasa dela. Nik beste modu batean ikusten dut afera: gazteen artean ematen den erabilera ez dator bat ezagutzarekin alderatuz gero. Helduen kasuan gertatzen den antzera. Hortaz, ez dezagun gazteen bizkar gainean utzi euskararen erabilerraren zama.

Amaitzeko, balio beza manifestazioak dena euskararen alde jartzeko: euskararen aldeko jaiak eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozialak indartzeko; ume, gazte zein helduen artean euskarak behar duen bultzada eta prestigioa eskuratzeko. Finean, sinistu dezagun euskara ez dela daukagun zerbait, gu garen zerbait baizik.




Durangaldean ostalaritzarekin, zerikusia duen negozioirik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian

